

X. URTEURRENEKO ALE BEREZIA

ARKO

Arrasate

P R E S S

1998ko
Abenduak 4
431. zenb.

IKUSPEGIA:
KARMELE PEREZ

ELKARRIZKETA:
JOSUNE ARIZTONDO

EUREN IKUSPUNTUTIK:
ASIER ARANGUREN

KULTURA:
OLENTZERO LEHIAKETA





ARRASATEKO UDALA

Zorionak
10. urteurrenean

50 urte eta gero, hau

A benduaren 10ean Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalak 50 urte beteko ditu. Azken asteotan behin eta berriz jaso dugu mezu hori Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak komunikabideetan bultzatu duen kanpainaren bidez. Baita horrek eragin duen isutilua ere. Izan ere, interes politikoak eta gizakien eskubideak noiz etorri dira bat, bada?



Karmele Perez

Horiek guztiak ulertzeko, ez dago oso urrun joan beharrik, zenbait adibide gure inguruan bizi direlako. Nork galdetuko die zer diren Giza Eskubideak Zaldizpen bizi direnei? Ala etxe inguruko karteletan edo kalean egon behar luketen presoek? Ala Ceutako Cala Mocarro-ko kanpamentuan Espainiara igarotzeko irrikitan dauden aljeriar, marokoar, senegaldar ala Sierra

Nork galdetuko die Zaldizpen bizi direnei zer diren Giza Eskubideak?

Leonakoei? Ala Iraken blokeoak eraildako 900.000 haurrei eta haien senideei?

Zein harreman dute gizakien eskubideek atzeritartasun legearekin? Zein txirotutako herriak presionatzen dituen kanpo-zorrrarekin?

Giza Eskubideen Deklarazioak hogeita hamar artikulua zituen eta horien artean honako hauek: bizitza eta askatasun eskubidea;

nolanahiko atxilotzerik ez egitea; atzerrian bizi ahal izatea; epaiketa zuzena, publikoa eta egokia edukitzea; inor ez torturatzea edo tratatu txarrik ez izatea; bakean biltzeko eta elkartzeko eskubidea; bereizkeriarik gabe, lan beragatik lansari bera jasotzeko eskubidea; pentsamendu eta erlijio askatasuna;

hezkuntzako eskubideak; kultura sozialean eta zientzien aurrerapenetan parte hartzeko eskubidea.

Baina deklarazio horrek ez zuen lege-

izaerarik eta, noski, badirudi adostu zuten haiek ere ez dutela horrelakorik betetzeko beharra sentitzen. Irakurleak bila biezaio adibideren bat horietako artikulua bakoitzari. Ez da oso zaila, zoritxarrez! Nazio Batuen Elkartek berak Iraken inguruan hartutako azken erabakiei begiratzea baino ez dago.

Jende askoren ahotan entzun ahal dugu egunotan dokumentu horren urtebetetzea ospatu beharra. Europako ehun pentsalarik dokumentu bat ere aterako dute pertsonen eskubide eta betebeharrak adieraziko dituen. Zer ote? Nik, ordea, ezin dut asmatu zer edo nori zoriondu behar zaion. Izan ere, dokumentu hartan behin eta berriz agertzen zen "askatasun" hitzari, "kontrol" hitza gainjartzen baitzaio gaur, kontrol amorratua bizitzaren eta munduaren eremu guztietan: nagusien kontrola langileengan, agintarien kontrola herritarrengan, herri aberatsen kontrola txirotuengan...

Giza Eskubideen Deklarazioak 50 urte beteko ditu abenduaren 10ean. Zenbat haien konplimenduak? ■

"Herri guztietan gazte jendea alfabetua dago, oro har, eskolaren bidez; adineko jendea da —oro har, hori ere—euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez duena. Hortaz, ez da ekonomikoa guztiei inposatzea gehienera jota ere erdiei soilik onuragarria —agian— gertatuko zaien eredu nahasi bat".

Ibon Sarasola

95

miloi pta. gastatuko ditu udalak Musakolako pasealekua egiten.

Datorren urtean bukatuko dira Monterron eta Mojategi lotuko dituen pasealekuko lanak. Konpondu egingo dira oraingo pasealekua eta sarrerak eta Obenerrekan zubi bat egingo da, Gelmatik gora datorren bidea gainditu ahal izateko.

ITURRI ONETIK

Cancelo txapelduna

Herri Komunikabideei buruzko III. Jardunaldien bukaera aldera galdetegi bat banatu zitzairen Olandixon bildu ziren batzarkideei. Besteak beste galdetu zitzairen zein izan zen gustukoena izan zuten hitzaldia edo ekitaldia.

Irabazlea Antonio Cancelo izan zen, MCCko lehendakaria. Jardunaldikideak ez ziren, bistan da, Canceloren ohiko entzuleak, baina oso interesgarritzat jo zuten hark erabateko kalitateaz egindako hitzaldia.

Bigarrena sailkapenean Goio Arana izan zen, diseinatzaile mondragoetarra. Kritika saioek ere nota ona jaso zuten. Horiek izan ziren lehen hirurak batzarkideen ustez.

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK
ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 77 05 65. Faxa: 943 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readysoft.es
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal. **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Ubane Madera, Maider Osa. **Publizitatea:** Kaittin Allende, Nerea Zallo, Arantza Lagunilla. (Tel.: 943 77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain (Tel.: 943 79 02 26)

Diseinua: Txos Azumendi. **Asteburuotako berri-mailea:** Gontzal Landa. **Bekaduna:** Anartz Agirre.

Kolaboratzaileak: Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Ixaro Arriola, Bixente Azkarate, Joxerra Aguirre, Juan Luis Azkarate, Aitor Oro-bengoa, Mikel Irizar, Udako Gaztania Salla, ASA Italdia, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoda, Amaia Jauregi-Arraburu, Jose Mari Astigaraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Berandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopi, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barreira. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.400. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Franketxo kontzertatua.** **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Onati).

ARRASATE PRESek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Jon Ruiz de Zarate.

Arrasateko Udalerriak laguntza. Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntza. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza.

ESKERRIK ASKO LAGUNDU DUZUENOI

Ertamerika, eta berezilci Nikaraguarekin elkartasuna adierazi duzuen lagun maiteok:

Laguntza ekitaldi honetan partaide izan naizen aldetik, eta munduak bazterturik utzi dituen guztien izenean, zuon-gana jo nahi izan dut nire eskerririk sakonena adierazteko asmoz. Baztertuak ugari dira, baina gertakizunen garapenak herrialde jakin batean lan egitera eraman gaituzte. Euskal Herria bezala, Nikaragua ere herrialde txikia da. Nikaragua txiroa da, Euskal Herria, berriz, ez. Herrialde hauetako hainbat hiriren arteko senidetaz gain, badago bien artean gauza komune gehiago. Bakea, justizia eta askatasuna kontzeptu teorikoak baino zerbait gehiago dira bientzat.

Bidea arantzaz josita bada-gore, elkartasunaren loreak bizirik dirau, zorionez, eta bideari izateko arrazoia ematen dio. Euskal Herriaren baitan, gure historia pertsonalak zehaztasun handiago batera eraman gaitu: Arrasatera hain zuzen. Gure inguruko egunerokoari buruz hitz egiterakoan aipamenik merezi duten bi kontzeptu aukeratzekotan, bi hauek liriteke: herri solidarioa.

Herri txiki batetik eguneroko milioi bat pezeta bidaltzea ez da gauza arrunta. Mirari hau ahalbideratu duena konfiantza izan da. Nikaraguara elkartasuna lantzeko xede bakarrarekin joan zen herritar batengan jarri duzue zuen konfiantza. Pertsona horren lagun batez ere

fidatu zarete: lerro hauek idazten ari zaizkizuen bera. Barka nazazue nire sentipenak ozenki adierazten jarraitzen badut.

Konfiantza da elkartasunaren oinarria. Gure ahaleginak biderka daitezten, ezinbestekoa da guztion batura. Banatzeak zatiketara garamatza soilik. Batzea, konfiantza izatea asko kostatzen da; edo agian ez. Haseran ez dago ezer ordaindu beharrik, baina konfiantza gure buruez jabetzen denean, behar den guztia emateko prest gaude.

Maria Lopez Vigil Nikaraguako kazetari nabarmenak dioenez, hiltzeko prest gauden horregatik soilik merezi du bizitzea. Arrasaten dinamika hau bizi izan dugu. Eutsi diezaigun gehituz; inoiz ez banatuz.

Gogoetak azaltzen jarraitu nahi dut zuen baimenarekin. Elkartasuna da pertsona eta herri egiten gaituena, besteengana irekitzen gaituena, batez ere txikiengana. Zorionak eman nahi dizkizuet konfiantza izan duzuelako. Konfiantza baita gure egunetako perlarik gogokoena. Ez da konfiantza itsua: bestearen tokian jartzea bilatzen duen konfiantza baizik, harekin batera gizakiaren mugei aurre agin ahal izateko. Konfiantza izan, indarrak gehitu, horixe da zuek egin duzuen. Horregatik eman nahi dizkizuet eskerrak.

Pertsona bezala pertsonak eskertu nahi ditut; gobernu kanpoko erakunde bateko partaide bezala nire GKEa, eta ekintza honi sostengua eman dioten beste GKEak, eskertu

nahi ditut. Eskerrik asko bihotz bihotzez

*Jose Manuel Corcuera
Arrasateko Mugarik
Gabeko Ingeniariak*

GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAK ITXURAKERIAREN ISLA?

Joan dan asteko *Arrasate Pressen* Iker Barandiaranek bere "Aurreikusitako zorigaitzak" ikuspegiari, Mitch urakana abiapuntuz harturik, egia galantak adierazten zituen gaur egungo munduaren egoerari buruz. Azterketa interesgarria, hitz gutxitan egiteko, nahiz eta jakinekua izan.

Bere ustez benetako neurriak hartu beharko liriteke, hau da, kanpo zorra kendu, azpiegiturak erraztu, etab., etab..

Ni GKE bateko kide bezala ados nago honekin guztiarekin, baina ez berak esaten duenarekin GKE askok biztanleriaren kontzientzia lasaitzea besterik ez dutela bilatzen, eta itxurakeria eta konponbiderik eza islatzen dutela, alegia.

Mundu solidarioa desio dut, mundu osorako gobernu edo antzeko zerbait, guztion berdintasuna defendatuko duena, gosea ezabatuko duena, osasuna eta heziketa guztientzat bermatuko duena, azken batean gizaki guztientzat bizitza duina ziurtatuko duena.

Baina hau guzti hau nola lortu? GKEak saiatzen gara gure inguruan arazo hauen guztien kontzientzia sortzen eta herri txirotuen arazo gure arazo ere badela ohartarazten,

zere eta gu, herritarrok, ez bagara konturatzen honekin guztiarekin, alperrik da esatea kanpo zorra kendu behar dela edo azpiegiturarekin ez dakit zer egin behar dela. Kanpo zorra kentzeko ideia edo beharra ez da sortu gure artean lili-raren bidez, askoren, eta hauen artean GKEen, eraginez baizik.

Kontzientzia astinduta sentitu ondoren, bakoitzak jakingo du nola lasaitu edo nola jokatutu. Hori, noski, beste arazo bat da, baina lekuz kanpoko salaketa dirudi GKEek itxurakeria edo konponbiderik eza bilatzen dutela esatea.

Andoni Uribetxeberria

EKINTZA ZUZENA ESKERRAK EMATEN

Joan den ostiralean gure aldikariak sekulako laguntza jaso zuen. Antolatu genuen kontzertuak arrakasta handia izan zuen eta lerro hauen bidez eskerrak eman behar ditut. Taldeen jarrera polita baino politagoa izan zen eta euren zintzotasuna eta apaltasuna aipatzeko modukoa da. *Arrasate Pressek*, *ATBK* eta *Arrasate Irratiak* eskainitako esparrua eskuzabala izan zen oso, eta Marian Porceli eta Maider Osari eskerrak eman behar dizkiegu, euren lanarengatik eta euren jarraitagatik. Eta bukatzeko aipatu beharra dago, Arrasateko Gaztetxearen jendeak emandako laguntza ahaztezina dela. Badakizue nortzuk zareten.

Ekintza Zuzena aldizkariaren izenean, eskerrik asko denoi bihotz-bihotzez. Gora deabrutxo!

Ekintza Zuzena

"PAL"
burdindegia,
brikolage
eta tresneria
Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE


Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarateko hotz eta beroak
Arrasate Pasoaletua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

**Monte
taberna**
Maalako arrabala, 11
Tel.: 943 79 20 56

URRATS
AHOLKULARITZA
GARIBAI, 3
Tel.: 943 79 87 74
ARRASATE


Zer albiste gustatuko litzaizuke irakurtzea Arrasate Pressen?

Arrasate Pressek hamar urte bete ditu abenduaren 2an.




Angel Gonzalez
(35)
Langilea

Gosea eta gerrak desagertu direla mundu osoan.



Jesus Moreno
(71 urte)
Erretiratua

Lehenagoko kontuak irakurtzen ditut nik gustura. Fotozaharrari begiratu eta, joño!, halako eta halako gogoratzen ditut.



Iñaki Arana
(37 urte)
Langabea

Bakea. Bakea, besterik gabe.



Juan Mari Urrutia
(51)
Langabea

Euskal Herrian konpontzeke dugun bakea konpondu dela.



Silvia Herrera
(23 urte)
Langabea

Gabonak laster datozenez, loteria ona toka dakigula denonari. Zer bestela?



Ana Izquierdo
(33 urte)
Etxekoandrea

Justizia eta bakea lortu direla mundu guztiarentzat.



Naroa Etxebarria
(12 urte)
Ikaslea

Mitch urakanak eragin dituen problema guztiak konpondu direla.



Dolores Aiastui
(45 urte)
Langilea

Langabezia amaitu dela, adibidez.

JUBAR
ATEAK. S.L.®

- BURDINAZKO ATEAK
- ETA PERTSIANAK.
- AUTOMATISMOAK.
- KONPONKETAK.

Kataide industrialdea, 18 • ARRASATE
Tel.: 943 79 10 20 • Fax: 943 79 08 17

ORTO + LAGUN
O R T O P E D I A

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

Ipek
Denda

Iturriotz, 19 (Herriko plaza) ARRASATE

4

ostirala

■ ZINEA

Algo pasa con Mary Alai Zineman, 19:00etan eta 22:00etan.

■ ANTZERKIA GAZTETXEAN

HIES Ekimenak eta Gaztetxeko Asanbladak antolatutako sentsibilizazio kanpainaren barruan, bihar Tunantes del Norte antzerki taldeak "Soo Bitxo" lana antzeztuko du. Saioa 22:30etan hasiko da, gaztetxean.

5

larunbata

■ ZINEA

Algo pasa con Mary Alai Zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ NAZIOARTEKO AKORDEOI LEHIAKETA

Goizeko 09:00etatik arratsaldeko 18:00etara arituko dira Nazioarteko VI. Akordeoi lehiaketa Amaia Antzokian.

Lehiaketak abenduaren 8a arte iraungo du.

■ ROCK KONZERTUA

Gospel Killers eta Brutal Melody talde mondragoetararak arituko dira Gaztetxean arratsaldeko 19:00etatik aurrera. Brutal Melody taldeak euren azken lana aurkeztuko dute kontzertuan.

■ IRTEERA PIRINIOETARA

Liantzarako irteera antolatatu du oraingo honetan Besaide mendi elkarteak. Goizeko 05:00etan aterako dira Gari bai kaletik. Pirinioetan asteartera arte egongo dira mendizaleak.

6

igandea

■ ZINEA

Algo pasa con Mary, Alai Zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ ANTZERKIA GAZTETXEAN

Nifu-Nifu antzerki taldea arituko da gaztetxean "La mosca sobaquera IV" antzezlaneanekin. HIES Ekimenak eta gazteteak antolatuta, saioa 19:00etan hasiko da.

■ SAN NIKOLAS EGUNA

Bolo-Boloa egingo da San Nikolas egunean, eguerdiko 12:00etatik 12:30etara. Udal-etxetik jaurtikiko dira goxokiak herriko plazara hurbiltzen diren haur guztientzat.

7

astelehena

■ ZINEA

Algo pasa con Mary, Alai Zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

■ JAZZ EMANALDIA

UNHE taldea arituko da Mondragon Hoteleko Kafe-Pianoan. Jazz kontzertua eskainiko dute gaueko 12:00etatik aurrera.

■ MUSIKA PARROKIAN

Arrasate Musikalek Iñigo Aizpiolearen akordeoi kontzertua antolatu du. Iazko Arrasate Hiria Nazioarteko Txapelketaren irabazleak arratsaldeko 20:30etan eskainiko du emanaldia San Joan Parrokian.

8

asteartea

■ ZINEA

Algo pasa con Mary, Alai Zineman, 17:00etan, 19:30etan eta 22:00etan.

■ AKORDEOI LEHIAKETA

Nazioarteko VI. akordeoi lehiaketaren itxiera ekitaldia Amaia antzokian izango da, goizeko 11:30etan. Orduan banatuko dira sariak.

9

asteazkena

■ ZINEA

Algo pasa con Mary, Alai Zineman, 19:00etan eta 21:30etan (ikusleen eguna).

■ GIZA ESKUBIDEEN 50. URTEURRENA

San Viator ikastolak antolatutu duen hitzaldi sortaren barruan, Bidezko Merkataritzari buruz arituko da Eki-merkatuko Francisco Jimenez. Hitzaldia arratsaldeko 19:00etan izango da, San Viator ikastolan.

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 943 79 91 84

ARETXABALETA



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis
Tel.: 943 77 09 92
Faxa: 943 - 79 78 14
ARRASATE

San Lorenzo, 39 etxabea
Tel.: 943 78 21 82
OÑATI

10 osteguna

■ HITZALDIA SAN VIATORREN

Giza Eskubideen 50. urteurreneko azken hitzaldia izango da San Viator ikastolan. Hizlaria Jon Sarasua izango da eta "Giza eskubideak eta herri minorizatuak" gaia jorratuko du, 19:00etan.

■ BAI EUSKARARI

XXI. mendeko akordioa: Bai euskarari kanpainaren barruan hitzaldia antolatu dute Monterronen. Euskara eta unibertsitate izango dute izpide hizlariak. Saioa arratsaldeko 19:00etan izango da.

■ ARTE PLASTIKOEN LEHIAKETA

Gure Leku tabernak arte plastikoaren lehiaketa antolatu du. Nahi duen guztiak har dezake parte. Lanak aurkezteko epea otsailaren 15ean amaituko da.

■ ABENDUKO MEZAK

San Andresko Parrokiako kristatuen elkarteak Bezperak ospatuko ditu, euskaraz, abenduko hiru larunbatean. Arratsaldeko 18:30etan izango da.

■ SANTA TERESAKO AUZOKIDEEI

Santa Teresan autoa dutenentzako deia egin du auzokide batek. Autoak aparkalekutik atera ezinda ibiltzen omen direla eta, arazoa konpontzeko Udalari "Autoen Pasabidea" jartzea eskatu nahi diote. horretarako ekimen honen aldeko sinadurak bildu nahi dituzte auzokideek. Interesatuak 943 79 60 51ra (Mari Paz) dei dezakete.

■ BESAIDAKO BAZKIDEEI

Besaide Mendizale Elkartek urtero bezala, abenduan, eskutiz bat bidaltzen dio bazkide bakoitzari. Orri hau entregatzeko egun eta ordutegi bereziak jarri dira bulegoan pilaketarik egon ez dadin. Hauek izango dira ondorengo egun eta ordutegiak: zabalik egongo da, astelehenetik asteazkenera, arratsaldeko 19:30etatik 20:30etara. Abenduaren 14, 15, 16, 21 eta 23an. Urtarrilean 4, 5, 7, 11, 12 eta 13an.

■ ERAKUSKETA MONTERRONEN

Idazkeraren arteari buruzko erakusketa irekiko da abenduaren 10ean, Monterronen. Erakusketa abenduaren 19a arte egongo da zabalik. Ordutegia: egunero, 18:00etatik 20:00etara eta larunbat eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

■ HORMIRUDI LEHIAKETA

Bazkide kanpainarako hormirudi lehiaketa antolatu du AEDK. "Ametsa Eraikiaz Doa. Egin zaitetz bazkide AEDn" leloa eraman beharko dute lan guztiek eta mezua ondo irakurri beharko da. 25.000 pta. lortuko ditu hormirudi hautatuaren egileak. Lanak aurkezteko epea abenduaren 22an amaituko da. Hormirudiak 34x30 neurrikoak izan beharko dira.

■ GABONETAKO LOTERIA

AFAGik, Gipuzkoako Alzheimerra duten senideen elkarteak, Gabonetako loteria jarri du salgai. Boletok honako toki hauetan eros daitezke: Milar Elkoro, Azkoaga farmazia (Ferrerias) eta Aita Menni Eguneko zentruan (Uribe auzoan).

■ GERONTOLOGIA IKASTAROA

ICTek, 3. adinekoen institutu komunitarioak, gerontologia ikastaroa antolatu du. Berri gehiago 943 77 16 99 edo 943 77 17 15era.

Sili Sili

Martxa eta estilo
handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Euskarazko komunikabide batek

KOMERTZIALAK

behar ditu publizitate salmentan aritzeko
DEBA GARAIA

Eskainiko da:

- Lan kontratua
- Soldata finkoa+komisioa

Baloratuko da:

- Eskarmentua antzeko lanetan
- Eskualdean bizi zena

Interesatuok bidali

curriculumak
helbide honetara:
Erref. Komertziala
1887 Posta-Kutxatila
DONOSTIA

Curriculumak jasotzeko azken eguna
abenduarik 12

HIES
EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiralean
5etatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99



MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

USTEAK USTE

Zorionak,
Arrasate

Joan den asteazkenean hamar urte bete zituen *Arrasate Pressek*. Beldurrez eta ilusioz gainezka atera ginen orduan kalera.

“AEDren eskutik plazaratzen gara”, esaten genuen orduan, “Mondragoeko Udalaren laguntza ezin hobeari esker. Gure herriari merezi duen komunikabidea eskaini nahi diogu. Astekari irekia eta integratzailea izatea nahi dugu. Horretarako euskara aukeratu dugu, geure herriaren elementurik integratzaileena izan daitekeelako (...) Horrekin batera *Arrasate Press* irakurterraza, atsegina eta praktikoa egin gura dugu”.

Horiek ziren asmoak. Hamar urte geroago *Arrasate Press* informazio iturri ezinbestekoa bihurtu da Arrasaten, beti bezain irekia segitzen du eta ekarpen handia egin dio euskararen erabilerari. Herritik kanpo ere mugimendu zabal baten aitzindari izan da: euskarazko herri aldizkariena.

Eskerrik asko modu batean edo bestean lagundu duzuen guztioi!

Joxe Aranzabal



Hamar urte eta gero...
Arrasate prest?

Asier Aranguren*

“Urte hartan ni Arrasateko Udaleko idazkari nintzen. Nire eskuetatik hamaika gai eta kontu pasatzen zen. Interesgarriak asko eta asko. Baina hortik gehienek garai hartako prentsan, herriko kroniketan islarik ez zutela ikusten nuen. Bazegoen udal txean zer kontu, baina informazio hori hortxe bertan galtzen zen. Periodikoetako kronikek ez zuten hondar bat besterik jasotzen... Udal txean, beraz, informazio iturri eder bat zegoen. Eta informazio hori galtzea udalaren eta herritarren kaltetan zen. Egoera horri, nire ustez, irtenbide bat aurkitu behar zitzaion”.

Jose Mari Erañaren hitzak dira, 1988. urteko egoera gogora ekarri nahi duten oroimenak. Intuizio baten ondorioz eta behar bat betetzeko jaio zen *Arrasate Press* sortzeko ideia, beraz. 1988ko abendua-ren 2rako kalean zen Arra-

sateko herri aldizkariaren lehenengo alea.

Beti bezala, produktu berri baten atzean pertsonak zeuden. Beharra sentitu, nola erantzun hausnartu eta aurrea eginez, ausart, herrian bertan, tokian tokiko albisteak landuko zituen astekaria plazaratu zuten. Orduan ideia berri bat zen, gaur klasiko bat da *Arrasate Press*.

Baina zeintzuk izan dira *Arrasate Press*-en ezaugarri nagusienak?

Edukia: Aldizkari informatibo egitea zen helburua. Euskara hutsez bai, zalan-tzarik ez horretan, baina ez

“
Beti bezala, produktu berri baten atzean pertsonak zeuden
”

euskararen inguruan. Herriko bertako albisteak, gertukoak, Arrasateko hiritarrentzat eguneroko bizitzan berri-kegai zirenak. Eta beste inon agertzen ez zirenak.

Ideologia: Partidu politikotatik urrun, udalaren presiotik ere urrun. Neutraltasuna.

Itxura: Argazki asko, testu laburrak, irakurterrazak. Diseinu modernoa eta erakargarria. Herritar arruntentzat argitaratutakoa, ez elite euskaltzaleentzat.

Finantziario partekatua: Erakunde publikotatik dirua jaso bai, baina baliabide propioak benetan eta gogor sortzen saiatu. Publizitate iturriak bilatu eta aurkitu. Autogestioa helburu moduan ipini.

Banaketa: Norberaren postontzira ostiralero. Erraztu bidea. Aldizkaria bera zeto-rren zugana, ez zen bila irten beharrik.

Prezioa: Doan. Ordaindu ezean errazago zen harpide izatea. Publizitatea egingo zuten merkatariarentzat garrantzitsua zen hori.

Ezaugarri hauei esker, *Arrasate Pressek* 10 urteko bide arrakastatsua egin du. Ez hori bakarrik, inguruan ere loratu egin dira antzeko proiektuak. Herri aldizkariak 50 bat dira egun, 120.000 aleko tirada dute eta 450.000 irakurlek hartzen dituzte.

Zorionak *Arrasate Pressi* eta inguruan dantzan dabilizan guztiei.

* EHUko irakaslea

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

astea bi hitzetan

■ **Aste Arabiarra**

Komite Internazionalistek antolatutako Aste Arabiarra asteartean bukatu zen, Afrikako etorkinei buruzko hitzaldi batekin. Talde hone-tako Aitziber Yeregi kide-ak, Almerian eta Ceutan dauden etorkinen egoera kaskarrari buruz hitz egin zuten. Antolatzaileak pozik agertu ziren etorritako adi-tuen mailarekin. Ez hain-beste hitzaldietara joandako jende eskasarekin.

■ **Lehiakortasuna autogintzan**

Joan den astean aurkeztu zen Otoran autogintzan lehiakorra izaten erakusten duen hitzaldi sorta, maiatza arte iraungo duena. ACICAEK

antolatuta, Mondragon Uni-bertsitateak, Autogintzaren Unibertsitate Zentruak eta Ezagutzaren Clusterrak har-tu dute parte ziklo honen antolaketan. Hitzaldiak, bes-teak beste, Mercedes Benz, Nissan, Renault, Mondra-gon Unibertsitateak, Robo-tikerrek eta Ikerlanek eman-go dituzte. Guztira 12 hitzal-di. Hamar Otoran jauregian eta azken biak Miramongo teknologia parkean.

■ **Uribarriko erretiratuen etxe berria**

Uribarriko erretiratuek etxe berria estreinatu dute aste honetan, Larrea etxeetan. Astelehenean ireki zuten eta asteazkenean taberna zabal-du. Egun berean Alzheimere

rri buruzko hitzaldia eman zuten. Dena den, Joakin Iria presidenteak esan digunez, oraindik ez dakite irekitze ekitaldi ofiziala noiz izango den, hori udalak erabaki beharrekoa da eta.

■ **HIESaren kontrako eguna**

Asteartean HIESaren kon-trako eguna zela eta, Arra-sateko HIES Ekimena talde-ak hainbat ekitaldi antolatu zituen. "Bota iezaiozu lazoa" lelopean. Eguerdian mahaiak jarri zituzten kale-an. Arratsaldeko zazpi t'erdia inguruan, kalejira egin zuten trikitrilari, han-kapalo eta malabaristekin. Erakusketa ere jarri zuten frantziskotarren etxean.

“

Barre mingotsa egin nuen, orain dela urtebete inguru, El Correo Español-eko Jose Antonio Zarzalejos jaun txit ukiezinari, tokiko prentsari buruzko galdera bat egin ziotela eta, Geu gara tokiko prentsa erantzun zuenean. Hombre! Euskal Herrian ECEk beste inork baino gehiago eta ia-ia herri guztietan saltzen duela onartuta ere (euskaldunok aspaldi galdu genuen komunikabide handien dema, eta horrela doakigu!), geurean beste medio mota batez pentsatzen dugu tokiko komunikabideei buruz mintzatzen ari garenean”.

JOSEMARI VELEZ DE MENDIZABAL
El Periodico de Alava,
1998.10.27

Loramendi kirolak

Hotzari aurre egiteko...

**Forro polarrak
Goretex-ak
Txamarrak
Botak...**

**eta ski ekipoak
21.900 pta.tik
hasita.**



Etorri katalogo berria jasotzera

INTERSPORT

Dirua biltzen Ertamerikarako

Euskadiko Kutzako kontseilu sozialak Mitch urakanak Ertamerikan eragindako kalteak direla eta, 10 milioi pezetako dirulaguntza ematea onartu zuen joan den asteko batzar nagusian. Aste honetan berriz, errektore kontseiluari eta zuzendaritza kontseiluari gauza bera egitea eskatu diote. Dena den, eguneko zerrendatik kanpoko gaia zenez, hurrengo bilera arte ezingo da jakin eskaera hau onartuko den.

Bestalde, eta gai honen inguruan, Ikerlango eta Fagorrek langileek lanordu bat eskainiko dute Ertamerikaren alde. Hala ere, oraindik ez dute erabaki jasotzen den dirua nola bideratuko duten.




250 afalkide bildu ziren kiroldegira.

Bai Euskarari atari jendetsua

Arrasateko Bai Euskarari taldeak afari jendetsua antolatu zuen joan den larunbatean Musakolako kiroldegian.

Guztira 250 lagun izan ziren. Giro polita sortu zen afaldarren artean. Postrerako oso koktel berezia prestatu zuten

gainera: bertsolariak eta "drak-queen" -ak. Honela girotuta, guztiek batera kantatzen bukatu zuten gaua.



Y O G A

Yoga Praktikoa

Mugimendu dinamikoak eta estatikoak uztartuz, arnasketa naturala eta lasaitzea ahalbidetzen da, oreka fisiko eta psikiko hobea lortuz.

Edozein adinetarako aproposa
Egiteko erraza



LIRAIN

ESTETIKA-ZENTRUA
EMAKUME-GIMNASIOA

Jokin Zaitegi Plaza, 10 • ARRASATE (Sarrera: Hotel Mondragon-en ondotik)

Eztabaidak aurrekontuen inguruan

Astelehenean udalbatzak oso-ko bilkura egin zuen. Zortzi puntu zeuzkaten aztergai eta guztiak onartu zituzten. Tartean, datorren urterako aurrekontua.

Hasierako zazpi puntuak gehiengo osoz onartu baziren ere, aurrekontuaren eztabaida piztu zuen oposizioaren eta udal gobernuak kideen artean. Bozketan, Ezker Batuak kontra egin zuen, Gobernu Batzordearen jarrera kritikatu. Herri Batasunako kideek mahaia utzi eta jendartean eseri ziren protesta moduan, beraz, ez zuten bozketan parte hartu. PPko zinegotzia, berriz, ez zen agertu ere egin.

Aurrekontuei buruzko xehetasun gehiago jakin nahi duenak begira dezala *Arrasate Press* honen gehigarri berezian. Hantxe ditu partidarik interesgarrienak.

UDAL GOBERNUA

Jose Mari Loiti alkateak, Paco Garcia zinegotzi sozialistak eta Isabel Gallastegi EAko zinegotziak aurkeztu zituzten datorren urteko aurrekontuak.



Herri Batasunako zinegotziak jende artean eseri ziren.

Alkateak hartu zuen hitza beste izenean. Aurrerakoitzat jo zituen aurrekontuak eta herriarentzat garrantzitsuak izango diren inbertsioak sustatzeko moldatuak. Udal gobernuak lau helburu nagusi bete nahi ditu aurrekontu hauekin: enplegua sortzea; kirol instalakuntzen programa definitzea, Mojategi zentru bateratu moduan hartuz; babes ofizialeko 80 etxebizitza egitea eta ahalegin garrantzitsua egitea kultura arloko azpiegituretan. Izkutukeriari buruz, berriz, jarrera desberdinak dituzten alderdiak daudela erantzun zuen.

EZKER BATUA

Udal gobernuak gaiak lantzeko darabilen izkutukeria salatu zuen alderdi honek. Zenbait gaitan seriotasun falta ere egotzi zion. Alderdi honetako Angel Tijeroren ustez, "ez dira bete aurrekontuak egiteko beharrezkoak diren gutxiengo baldintzak. Inbertsioetarako zuzendutako partidek ez daukate sinesgarritasunik oposizioaren aurrean".

HERRI BATASUNA

HBrentzat, ostera, aurrekontuetan lantzen diren gaiak ez dira dagozkien batzordeetan ez aztertu ez eta eztabaidatu ere.

Hirutariko gobernuak nagusikeriaz jokatzeko duela gaineratu zuen. HBko Ino Galparso-oren ustez, "aurrekontuan lantzen diren proiektuen ildo nagusiak behintzat, alderdi guztien gutxiengoko adostasunarekin garatu beharko liriateke". Era berean, arazoak konpondu nahian, alkatearekin eta EAekin hitz egin zutela azaldu zuen, baina atarramendu onik barik.

Hori salatzearen ez zuten bozketan parte hartu eta jendartean eseri ziren.

Bestelako gaiei dagokienez, Mitch urakanak Ertamerikan kaltetutakoei dirulaguntza ematea onartu zuen udalbatzak. Dena den HB eta EB alderdien ustez, gai hau sakonago aztertu eta bestelako lanak ere egin beharko lituzke udalak. Hori dela eta, abenduaren 14an izango den hurrengo oso-ko bilkurarako mozioa jartzea proposatu zuten. Proposamena onartu egin zen.

Enpresa Batzordearen ize- nean, Jon Alustizak hainbat udal lanpostu finkoak egitea eskatu zuen.

Eskulanak Monterronen

Etzi bukatuko da Familia eta Gizarte Hezkuntzarako Zentruak antolatutako erakusketa. Monterronen dago ikusgai pasa den azaroaren 27tik aurrera. Zentruko ikasleek egindako eskulanak ikus daitezke: harian eginko lanak, makramea, gako- rratza, brodatuak, zeramika eta apaintzeko ohialak.

Erakusketa zabalik egongo da asteburuan. Eguerdiko 12:00etatik 14:00ak arte eta arratsaldeko 18:00etatik 20:00ak arte.



Hirugarren Munduaren alde

Kolonbiari laguntzeko dirua batuko da gaurtik hasi eta hilaren 31 arte. Bigarren urtez segidan, Arrasateko Harreman elkarteak "Arrasateko Artea Hirugarren Mundua Lagunduaz" erakusketa eratu du, hau ere frantziskotarren aretoan. Arrasateko artistek emandako artelanak jarriko dira salgai. Batuko den dirua Kolonbiako San Clemente proiektuan erabiliko da, hango komunitateari laguntzeko.

Talde hauek parte hartu dute erakusketan: Leniz Zeramika Eskola, Arrasate Margo Taldea eta E.G. Zentrua Pintura Taldea.

Ordutegia, lanegunetan arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara eta astebukaeretan eguerdiko 12:00etatik 14:00etara bitartekoa izango da.

Gaur arratsaldeko 20:00etan Goikobalu abesbatzak kantaldia eskainiko du San Frantziskon.

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	
ORLANDO PIRAT.	5	5	0	0	33	6	10
AC SURKOS	5	5	0	0	31	13	10
LONTXO TABERNA	5	4	1	0	27	8	9
XHASSS UGARTE	5	4	1	0	31	13	9
PEPELUS	5	4	1	0	18	9	9
ALDIBI	5	3	0	2	27	10	6
LEYA	5	3	0	2	13	12	6
INSERT COIN	5	3	0	2	14	17	6
KOM. ALPARGAT	5	2	1	2	21	16	5
KE OXTIAS	5	2	0	3	22	14	4
REX 23	5	2	0	3	15	15	4
SERENGETI HC	5	2	0	3	12	22	4
BALON ROJO	5	1	1	3	9	23	3
MAKAI	5	1	0	4	7	26	2
BUKANAK	5	1	0	4	9	36	2
ALAI GOZOKIAK	5	0	1	4	15	26	1
SAUKELU SCREAM	5	0	0	5	7	19	0
ROTOR BOLBO.	5	0	0	5	6	32	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	
TXANTXIKU KIROL.	5	5	0	0	46	7	10
AURRERA BOLIE	5	5	0	0	27	9	10
KKJAURI	5	3	2	0	22	15	8
IRATI STS	5	3	1	1	31	17	7
NARANJA MEC.	5	3	1	1	31	18	7
LOS HEREDIA	5	3	1	1	17	14	7
GARAJE OSKAR	5	3	0	2	25	14	6
BORROCK & ROLL	5	2	1	2	15	16	5
AT CELAYA	5	2	1	2	15	20	5
ZOTZ	5	1	2	2	28	21	4
KOKA JUNIORS	5	2	0	3	14	18	4
DIEGO ANTONIO	5	1	2	2	13	23	4
POTROSORRI	5	2	0	3	13	31	4
DKB	5	1	1	3	21	22	3
LAUTERBRUNENN	5	0	2	3	12	28	2
PUB ARROGOI	5	1	0	4	7	24	2
ATERPE KAFETEGI.	5	0	1	4	13	32	1
ETXE MOBEL	5	0	1	4	12	32	1



Hurrengo partidak

Abenduak 5, larunbata

- Zaldibar**
 09:50 Ac Surkos - Xhasss
 11:00 Etxemobel - Irati STS
 12:00 Dribling - Jotakabau
 13:00 Aterpe Kafe. - KKJauri
 14:00 C. Luso - EPEH
 15:00 Saukelu Scream - Makai
 16:00 DKB - Zotz
 17:00 Orlando Piratas- Leya
 18:00 Fraguel. - Aita Menni
 19:00 Potroak - Bar Nuevo

Iturripe A

- 10:00 Bukanak - Ke Oxtias
 11:00 Lauterbur. - Koka Juniors
 12:00 Borrock - Naranja Mec.
 13:00 Alai Gozo. - Kom. Alpar.
 14:00 Txantxiku - Diego Ant.
 15:00 Totem - You Know
 16:00 Lontxo - Serengeti HC

Iturripe B

- 13:00 Heredia - AT Celaya
 14:00 Rotor. - Balon Rojo
 15:00 Garaje Oscar - Potroso.
 16:00 Insert Coin - Aldibi

Abenduak 6, igandea

- Zaldibar**
 09:50 Rex 23 - Pepelus
 11:00 Decaden. - Euskolabel
 12:00 Kamasutra - Betraye
 13:00 Sokoakoak - Jako al rey

Atsedena:

- B Taldea: Aurrera Bolie
 D taldea: Branka Taberna

Emaitzak

A TALDEA

- Bukanak 3 - Orlando Piratas 15
 Lontxo Tab. 3 - Kom. Alpargat 1
 Insert Coin 4 - Serengeti HC 3
 Saukelu Scream 0 - Leya 1
 Ke Oxtias 2 - Pepelus 3
 Rotor de Bolbogrado 1 - Aldibi 11
 Balon Rojo 3 - AC Surkos 7
 Xhasss Ugarte 5 - Rex 23 2
 Alai Gozokiak 4 - Makai 5

B TALDEA

- Borrock & Roll 1 - Garaje Oscar 4
 DKB 2 - Diego Antonio 2
 Los Heredias 5 - zotz 4
 Aurrera Bolie 7 - Potrosorri 1
 Naranja Mecanica 5 - Irati STS 6
 KKJauri 4 - AT Celaya 4
 Aterpe Kafete. 2 - Koka Juniors 4
 Lauterbrunnen 3 - Etxemobel 3
 Txantxiku Kirol. 1 - Pub Arrogoi 0

D TALDEA

- Construc. Luso 2 - Sokoakoak 3
 Driblig 4 - Bar Nuevo 4
 Decadencia 3 - Jako al Rey 3
 EPEH 6 - Aita Menni 2010 4
 Kamasutra 0 - Jotakabau 1
 Betraye 1 - You Know 7
 Totem 3 - Fraguel Gol 4
 Branka Taberna 9 - Eusko Label 4

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aldo	Aurk.	
DRIBLING	5	4	1	0	23	11	9
YOU KNOW	4	4	0	0	24	6	8
SOKOAKOAK	5	4	0	1	21	14	8
JOTAKABAU	5	3	1	1	10	10	7
POTROAK	4	3	0	1	18	7	6
BRANKA TABERNA	5	2	2	1	22	19	6
EPEH	5	2	2	1	20	15	6
AITA MENNI 2010	4	2	1	1	18	15	5
BAR NUEVO	4	2	1	1	18	15	5
FRAGEL GOL	5	2	1	2	13	12	5
TOTEM	5	2	0	3	14	14	4
JAKO AL REY	5	1	2	2	14	15	4
DECADENCIA	5	1	1	3	10	11	3
KAMASUTRA	5	1	1	3	13	16	3
BETRAYER1	34	0	1	3	7	19	1
EUSKO LABEL	5	0	0	5	15	37	0
CONSTRUC. LUSO	5	0	0	5	7	31	0

Pub Arrogoi kalera

Pub Arrogoi taldeak ez du Zaldibarko txapelketa bukatuko. Arraioza: norgehiagokara ez aurkeztu izana. Arauek diotenez, aitzakiarik gabeko kaleak, bat bateko kaleratzea dakar. Larunbatean Txantxiku Kirolak taldearen aurkatzera ez ziren aurkeztu. Dena den, oraindik agertuko da sailkapenetan. Bi punturekin geldituko da lehen fasearen bukaera arte. Talde honen aurka jokatuko dutenek 1 eta 0 irabaziko dute.

FELIPE MADINA
ZURAK
 Zarugalde, 40 ARRASATE
 Tel.: 943 79 13 78

NAROKI
LIBRYDENDA
 Zure oparia
 hemen aurkituko
 duzu!!

NAROKI
BITXIATEGIA
 Opari bat
 erosketa
 bakoitzeko
ZATOZ!

M
ARENAZA
 Altzariak
 Diseinua
 Apainketa
 Bizkai, 1 • ARETXABALETIA
 Tel.: 943 79 08 07



AMAGARA

Erdiko Kale, 54 etxabea
ARRASATE
Tfnoa: 943 79 09 09

Gabonetan Edertasuna oparitu zeure
buruari edo beste inori,
garrantzitsuena ZEU zara eta...

ZORIONAK!



Jakinduria eta etengabeko heziketa dugun profesionalak gaituzu,
lanean kalitatea eta zintzotasuna eskaintzen ditugunak.



eta

bai&by
lud



Bikote honek
zer esan asko
emango dizu...

**INGELESEZ ETA
EUSKARAZ**

CIM eta bai&by k hizkuntz
irakaskuntzaren munduko **bikoterik**
erakargarriena, sendoena
eta osoena osatzen dute.



CIMen enpresa egitasmoaren bilakaera
logikoan oinarrituta, bai&by-k azken teknologi
baliabideak eta emaitzak bermatzen dizkizun sistema
dituen **ingeles eta euskara** ikasteko multimedia me-
todo modernoa eskaintzen du.



CIMek hizkuntz irakaskuntzako **25 urteko**
eskarmentua, heziketarako enpresa egitasmoa
eta zure edozein beharretara moldatzeko gai den zerbitzu
malgua eskaintzen du.

Araba hiribidea, 4 - Arrasate

Tel: 943 - 712055 - Fax: 943 - 712181

Olakua, 14 - Oñati - Telf: 943 - 716000 • E-Mail: empresas@cim-idiomas.com • <http://www.cim-idiomas.com>

¡ Ingelesa eta euskara ziztu bizian !

egizabal

Oinetakoak
eta poltsak



Betikoak!
Lau belaunaldiren
bermea dugu.

Ferrerias 9 • ARRASATE • 943 79 66 01

Bidekurutzeta 13 • BERGARA • 943 76 12 28

ALTZARIAK

UGARTE

APAINKETA

- Leiho termoakustikoak
- Ateak

AROSZTEGIA

- Horma armairuak
- Altzariak



San Juan, 1
(Gasolindegiaren parean)
BERGARA
Telefonoa eta Faxa: 943 76 54 91

Saioako karatekak garaile

Saioa Karate eskolako karatekak Hernanin izan ziren joan den igandean, hantxe jokatu baitzen Gipuzkoako txapelketa. Mondragoeko zazpi lagun aritu ziren junior eta haur mailan lehiatzen.

Haur mailan Jorge Sanchez, Maikel Talledo, Sandra Alvarez eta Patricia Morales izan ziren. Hirukoitza izan zen maila honetan lortutako emaitza ona.

Patricia Morales lehenengoa izan zen nesken artean. Sandra Alvarez bigarren gelditu zen. Maikel Talledo, berriz, hirugarren izan zen mutilen artean.

JUNIORRAK ERE OSO ONDO

Maila honetan Saioako hiru karateka aritu ziren. Zazpi kirolariak kumite proban aritu ziren. Juniorretan, 80 kg.

azpitik lehenengo Iker Zabarte izan zen. 70 kg. azpitik, berriz, Erik Martinek lortu zuen lehen tokia.

Datorren abenduaren 19an, larunbata, Euskal Herriko txapelketan parte hartuko dute zazpi kirolariak, Laudion. Hantxe bilduko dira Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako haur eta jurnior mailako karatekak.



Laudiora joango dira Saioako karatekak.

Santamas XX. Krosa

Arrasate Atletiko Taldea-Arrasate Kirolak-ek abenduaren 20an jokatu den Santamasetako koadrilen arteko krosa antolatu du. Proba Deba Garaiko talde guztientzat da. Izena egunean bertan emango da, herriko plazan. Proba eguerdiko 12:00etan hasiko da.

Bada, hala ere, banakako lasterketa bat. 10:30etan hasiko da eta, hamar minutuko tartearekin, lehenengo 14 urtekoak aterako dira.

Azkenak 7 urtekoak.

Taldeen arteko probak 6 km.ko ibilbidea izango du.

Irabazleak bildots bat eskuratuko du. 2.ak lau untxi eta 3. sailkatuak, bost oilasko.



Abenduaren 20an izango da. Santamas XX Krosa.

FUTBOLA Lehenengo puntua



Nazional liga jokatu ari den nesken futbol taldeak ligako lehen puntua eskuratu zuen joan den igandean. Patronato nafarren aurkako norgehiagoka hiruna berdindu zuten Atxabalpen Esti Loitiren neskek. Asteburu honetan jai izango dute. Preferentzia mailako Mondrak, berriz, 0 eta 1 galdu zuen Bergararen aurka. Saillapenean azken aurreko tokian daude. Aste honetan Anaitasunaren aurka arituko dira igandean.

SASKIBALOA Sekulako norgehiagoka




Sekulako partida jokatu zuen Arrasate Saskibaloia taldeak larunbatean. 107 eta 95 irabazi zion Euskaldi Siglo XXiri. Pibote jokoan nagusi izan ziren eta kontraerasora ere oso ondo aritu ziren. Junioorak, bestalde, zubia dela eta, ostiralean arituko dira Urretxun. Abenduaren 12an Iturripen jokatu den partidaren Arrasate Kirolakek Errioxako ardo botilak zozkatuko ditu. Nagusiak Goierriren aurka jokatu dute.

ESKUBALOA Gutxigatik oraingoan ere



Arrasate Eskubaloia taldeak tarte txikiarekin galdu zuen oraingoan ere Iturripen. 19 eta 24 amaitu zuten usurbildarren aurka. Aste honetan Sestaon jokatu dute.



ESKER TXARREKO LANA

Jardunaldiak bezalako antolaketak egiten direnean, gauza asko jarri behar izaten dira han eta hemen, dena ondo joan dadin. Gehienetan oharkabean igarotzen dira lanok. Jardunaldi hauetan Iñigo Andola ibili zen muntaketak egiten. Ondo, gainera. Eskerrik asko, Iñigo.

ASKARI EDERRA!

Azaroan, Txatxilipurdiko lau lagun perretxiko bila joan ziren, ondoren askaria egiteko. Argazkiaren goi aldean Garazi Mendizabal eta Amaia Agirre daude. Behealdekoak, berriz, Garaziren ahizpa Nerea eta Ane Agirre dira. Ondo pozik daude batutakoarekin!

Nice boys, goi mailako striptease-a


5 MUTIL
TOMASLARSON
KOREOGRAFIA
STRIPTease
INTEGRALA

Jam
aretoa



LARUNBATA, 12
24:00etan
Sarrera: 1.000 pta.

www.salajam.com



JOSTUNEN EGUNA



PASIERAN

Eguraldi kaskarra izan genuen Herri Komunikabideei buruzko III. Jardunaldietan. Euria zarra-zarra aritu zen. Larunbat bazkalostean, aldiz, ateri zegoen eta hainbat biltzarkide oinez abiatu ziren Olandixoko aldapan gora.

PREIXOXO...!!!

Ez dira Inauteriak, ez. Mondragoeko mutilek janzkera aldatu dute. XXI. mendearekin batera joateko berriztu beharra ikusi dute dirudienez, eta bueno, ba hori. Hemendik aurrera, moderno-moderno ibiliko dira, eh?



TXIKI-PARK-EN JOLAS

Larunbatean, Txatxilipurdiren Larunblai egitasmoaren barnean, haurrak eta gaztetxoak Gasteizen izan ziren eta fijo primeran ibili zirela. Hurrengoan neu ere eurekin noa.

ZERGATIK EZ GABONETAN BIDAIA BAT OPARITU?

• Weekend-plana

• Bainuetxeak

• Paradoreak

• Eskia

• Itsas bidaia

• Disney - Futuroscope



HALCON
BIDAIAK

Informatu zaitetz gure eskaintza bereziaz
Iturriotz kalea, 23, Tel.: 943 79 29 88

Olentzero marrazki lehiaketa egin da Arrasateko haurren artean

Arrasate Pressen X. urteurrenean, urte hauetan publikitate Mondragoeko aste-karian egin dutenei eskerrak emateko mailing bat egitea bururatu zitzaizen publizistei. Zuetako askok galdetuko dio bere buruari mailinga zer ote den. Bada, eskutitz pertsonalizatua da, Gabonak direla eta, kasu honetan eskerrak emateko erabiliko duguna.

Dena den, aurrean astekarian publikitatea jarri dutenek jasoko duten postalak izango du berezitasunik. Izan ere, Arrasateko ikastetxe guztietako eta Almeneko 3tik 12 urtera bitarteko haurren artean lehiaketa bat egin dute. Guztira 1.500 marrazki jaso dira. Hauetako bakarra izango da, ordea, postal horretako azalean agertuko dena.

Marrazki irabazlea Txaxilipurdiko arduradunek hautatuko dute. Lehiaketa horretan irabazle izango denaren Gabonetako irudia urte honetako Arrasate Presseko azken alean ere azalduko da.

URTERO ERREPIKATUKO DEN LEHIAKETA

Arantzazu Lagunilla Arrasate Presseko publizistak adierazi digunez, "seguru aski urtero errepikatuko den lehiaketa izango da hau. Horrela,



La Merced ikastetxeko haurrek beren marrazkiak erakusten.

urtero gure mailingtxoa egingo dugu".

Txikilandian 50 edo 100 marrazki onenak erakusgai jarriko dituzte Gabonetan. Guztiek ezaugarri bakarra izango dute komunean: Olentzero. Izan ere, Arantzazu Lagunillak esan digunez, "Olentzeroren irudia indarra galtzen ari dela eta, berau zuzpertzeko irudi guztiek Olentzero izan behar zutela erabaki genuen".

Astelehenean jaso zituzten publizistek marrazki guztiak. Ikastetxeetako meek, gainera, marrazten ederki pasa zutela esan zieten.

HIES Ekimenak sentsibilizazio jardunaldiak antolatatu ditu

HIES Ekimenak sentsibilizazio jardunaldiak antolatatu ditu "Jaurti izeazioz lazoa" lelopean. Hori dela eta, gaur ostirala Tunantes del Norte taldeak "Soo Bitxo" antzez-lana eskainiko du. Ekitaldia Arrasateko gaztetxean izango da, gaueko 10:30ean. Larunbatean, berriz, Brutal Melody taldearen kontzertua izango da, eta hemendik

jasotako dirua Jabi Mayorrentzat izango da. Igandean, berriz, Nifu-Nifa antzerki taldekoek "La mosca sobaquera IV" obra antzetzuko dute. Antzezlan hau ere gaztetxean izango da, arratsaldeko 19:00etan.

Horretaz gain, komiki lehiaketa ere jarri dute abian. HIESa eta sexu segurua izango da lehiaketa honetako

gaia eta hiru maila bereiztu dituzte: 12 urtetik 15erakoa, 15etik 18ra bitartekoena eta 19 urtetik gorakoena. Komikiek bi orritik lau orrira bitarteko luzera izan dezakete eta datorren martxoaren lehena baino lehen aurkeztu behar dira. Irabazleek 25.000 eta 20.000 ptako sariak eskuratuko dituzte, guztiak erosketa baletan.



Elizondo
kafetegia



Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 943 79 15 99


S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82



BEREYA SAL

elektrizitatea

- ALARMAK. TB. SATELITEAK
- INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
- ANTENA KOLEKTIBOAK
- PROIEKTUAK ETA GARAPENAK
- SOINU INSTALAZIOAK
- TB ZERBITZU TEKNIKOAK
- KONPONKETAK OROKORREAN
- ATEZAIN AUTOMATIKOAK

Erdiko kale, 50 • ARRASATE • Tel.: 943 79 13 79 / Mug.: 908 57 90 24 / Faxe: 943 77 15 34

Jostunen afaria

≈ KAFETEGIKO MENUA ≈ ≈ JATETXEKO KARTA ≈

Hasierakoan aukera

Zainzuriak

Arrain Budina

Antzara Patea

Urdaiazpikoa

Itsaski Krema

Bakailava Pil-Pillean

Tzahal Masailak Sagar Konpotarekin

Moka Tarta Tzoshiarekin

Kafea

Ardoak: Marin Palacios Piojia

Las Campanas Ardo Gorria

Cava: Bossuet

Prezioa: 4.750 pta. (BEZa barne)

Mondragon hasierakoak

Charraintxoak

Urdaiazpiko Iberikoa

Ahate Moussea

Zainzuriak

Legatz Pastela

Porrú Hojaldeoa

eta Garbak bere Taltzatzarekin

Salda

Legatza Saltsa Berdean Tzirlekin

Idi Saihetsartekoa Lagungarriekin

Tzokolato Tarta Banillarekin

Kafea

Ardoak: Marin Palacios Piojia

Las Campanas Ardo Gorria

Cava: Bossuet

Prezioa: 5.500 pta. (BEZa barne)

Abenduaren

12an

zapatuan


HOTEL
MONDRAGON
**

Biteri Etorbidea, 16

Tel.: 943 71 24 33



Dantza eta sorpresa!!

■ *ATBren programazioa*

LARUNBATA, 5

13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika:
Munduari Buelta-ka (EEBB Imanol Exposito), Arrasate Pressen X. urteurrena, Soinuz Blai, Astebete.

IGANDEA, 6

13:30 Asteko programarik interesgarrien errepika:
Munduari Buelta-ka (E.E.B.B. Imanol Exposito), Arrasate Pressen X. urteurrena, Soinuz Blai, Astebete.

ASTELEHENA, 7

Ez dago programaziorik, zubia dela eta.

ASTEARTEA, 8

Ez dago programaziorik, zubia dela eta.

ASTEAZKENA, 9

13:30 Albiste aurrerapena.
13:35 Arrasate Pressen X. urteurrena (Errepika).
20:00/20:30 Berriak.
21:00 Mahai Ingurua. Rosa Mondragonek aurkeztuta. Gaia: Gabonak eta Kontsumismoa



Rosa Mondragon

OSTEGUNA, 10

13:30 Albiste aurrerapena.
13:35 Mahai Ingurua. Rosa Mondragonek aurkeztuta. Gaia: Gabonak eta Kontsumismoa (Errepika).
20:00/20:30/21:00 Berriak.
21:30 Kaleidoskopia. Unai Iparragirre eta Aitziber Langaranek aurkeztuta. Literatura, zinea, kultura erreportajeak eta lehiaketa.
22:00 Soinuz Blai. Edu Abasolok aurkeztua.

OSTIRALA, 11

13:30 Albiste aurrerapena.
13:35 Kaleidoskopia. Unai Iparragirre eta Aitziber Langaranek aurkeztuta. Literatura, zinea, kultura erreportajeak eta lehiaketa. (Errepika)
20:00/20:30/21:00 Berriak.
21:30 Astebete.
22:00 Soinuz Blai. (Errepika).



1946-1998

50 urteko muga
gainditu dugu
zure oinak janzten!

ZURE
KONFIANTZAZKO
DENDA

Beatriz
oinetakoak

Erdiko kale, 11 • ARRASATE • Tel.: 943 79 14 33

Udal Aurrekontuak

99

Joan den astelehenean, azaroaren 30ean, Arrasateko Udalak 1999ko aurrekontua onartu zuen, EAJ, PSE-EE eta EAren aldeko botoekin. Ezker Batuak kontra eman zuen botoa. HB abste-

nitu egin zen eta PP ez zen egon.

Urtero bezala, hementxe dituzue datorren urteko aurrekontuen partidarik garrantzitsuenak. Beste urte batzuetan bezala, ez ditugu partida guztiak jaso, luze joko luke eta.

Aurrekontu orokorraren barruan udalaren aurrekontua dago (3.299.617.717 pta), Aukearena (150.559.169 pta) eta Iturbide Egoitzarena (210.280.626 pta).

AURREKONTU OROKORRA

3.491.306.713 pta.

(laz baino 194.793.974 pta. gehiago)

SARRERAK 3.299.617.717

• Zuzeneko zergak	640.800.000
• Zeharkako zergak	85.000.000
• Tasak eta prezioak	467.385.000
• Transf. korranteak	1.607.199.435
• Ondare sarrerak	38.550.000
• Inbertsioak inorenganatzea	150.000.000
• Kapital transferentziak	164.477.038
• Finantza aktiboen aldaketa	10.000.000
• Maileguak	136.206.244

GASTUAK 3.299.617.717

• Pertsonal gastuak	691.395.674
• Ondasunak eta erosketa	565.886.288
• Interesak	72.910.186
• Transferentzia arruntak	623.730.616
• Inbertsioak	1.084.320.003
• Kapital transferentzia	70.111.343
• Finantza aktiboen aldaketa	10.000.000
• Amortizazioa	181.263.607

UDAL ZERBITZUAK 770.927.860

• Pertsonal gastuak	222.801.358
• Bideak garbitzea	105.023.000
• Parques y Jardines mantenimendua	81.040.000
• Argiteriarentzako argindarra	32.000.000
• Ur eta saneamendu erosketak	11.350.000
• Udaletxea garbitzea	6.464.000
• Zerbitzuen funtzionamendurako gastuak	6.000.000
• Gabonetako argiak	500.000
• Udaltzainen jantziak	1.730.000
• S. Kristobal hilerriko gastuak	1.150.000
• Bide seinaleak erostea	3.000.000
• Mantenimenduko brigadaren jantziak	800.000

KULTURA ETA KIROLAK 757.467.963

• Pertsonal gastuak	45.063.184
• Kultura ekintzak	10.200.000
• Jailetako gastuak	23.000.000
• Txikilandia	2.488.000
• Aukearen defizita	92.328.799
• Kulturarako diru laguntzak	10.000.000
• Arrasate Musikal	40.800.000
• Ludoteka-Txatxilipurdi	5.406.000
• Ferixalekuko pilotalekua	115.000.000
• Liburutegi berria	120.000.000
• Lokalak bateratzea	40.000.000
• Musakolako kiroldegia	120.000.000
• Musikaetxea	90.000.000

GOBERNU ORGANOAK 51.744.509

• Gobernu organoen ordainketak	34.750.000
• Alkatearen hartzekodunak	7.568.305
• Alkatearen mutualitatea	1.996.204
• Ondasun eta zerbitzu erosketa	5.775.000
• Transferentzia arruntak	1.655.000

EMAKUME SAILA 15.411.238

• Pertsonal gastuak	4.361.638
• Emakume Sailaren ekintzak	9.786.900
• Ikastaroak	52.000
• Emakumearen Udak Kontseilua	1.122.000
• Argitalpenak	62.200

KULTURA ETA KIROLAK757.467.963

• Pertsonal gastuak	45.063.184
• Kultura ekintzak	10.200.000
• Jaietako gastuak	23.000.000
• Txikilandia	2.488.000
• Aukearen defizita	92.328.799
• Kulturarako diru laguntzak	10.000.000
• Arrasate Musikal	40.800.000
• Ludoteka-Txatxilipurdi	5.406.000
• Ferixalekuko pilotalekua	115.000.000
• Liburutegi berria	120.000.000
• Lokalak bateratzea	40.000.000
• Musakolako kiroldegia	120.000.000
• Musikaetxea	90.000.000

GAZTERIA45.302.233

• Pertsonal gastuak	9.087.317
• Auzoetako Gaztetxokoak	11.655.816
• Gazteria Batzordearen ekintzak	5.194.000
• Sexu informaziorako zerbitzua	2.060.000
• Gazteentzako diru laguntzak	7.826.900
• Behin behineko Gaztetxeko lanak	2.000.000
• Uribarriko gaztetxokoa	5.000.000

OSASUNA243.896.461

• Pertsonal gastuak	27.816.360
• Etxeko laguntza zerbitzuak	76.400.000
• Iturbide egoitzaren defizita	65.000.000
• Pobreziaren kontrako plana	28.000.000
• Osasun batzordearen ekintzak	3.950.000
• Egoitzako inbertsioak	5.000.000
• Zahar etxeen inbertsioak	5.500.000
• Elbarrituen garraioa	2.000.000
• Gobernuz Kanpoko Erakundeak	8.000.000
• Babesgabeko egoerretarako laguntza	3.000.000

PERTSONALA254.574.103

• Pertsonal gastuak	148.387.337
• Udal aseguruak	12.500.000
• Gastuak, telefonoak, mezulariak	8.700.000
• IZFE-Udala	8.607.626
• Enplegua sortzeko ekintzak	6.200.000
• Prentsa eta irratiko iragarkiak	4.080.000
• Lege aholkularitza	5.000.000
• Lantegi Eskola	9.440.000
• Lanbide Hastapena	6.875.000
• Lanbide Hezkuntzarako diru laguntzak	4.500.000

FINANTZA ZORRA254.173.793

• Maileguen interesak	72.910.186
• Amortizazioa	181.263.607

HIRIGINTZA552.101.677

• Pertsonal gastuak	80.938.627
• Ondasunak eta zerbitzuak	8.244.600
• Suradesa	3.540.250
• Ingurugiro taldeentzako laguntza	510.000
• S-3ren urbanizazioa	100.000.000
• Alde zaharra	60.000.000
• Zaldispe-Osinagako urbanizazioa	30.000.000
• Obenerrekako zubia pasealekuan	95.000.000
• Antoñako saihesbidea	40.000.000
• Makatzenako atzealdearen urbanizazioa	30.000.000
• Alde zaharra apaintzea	20.000.000
• Ibilgailuentzako tokia	2.500.000
• Argiteria inbertsioak	4.000.000
• Ur eta saneamendu inbertsioak	9.000.000
• Asfaltatuak	14.000.000

HEZKUNTZA110.536.454

• Pertsonal gastuak	18.451.154
• Ondasunak eta zerbitzuak	22.585.300
• Hezkuntzarako diru laguntzak	8.600.000
• Herri eskolak	3.890.000
• SFX ikastola	18.100.000
• Umezaintza	6.405.000
• Institutua	3.555.000
• Almen	1.730.000
• S. Viator	8.905.000
• La Merced	4.815.000
• Hezkuntzarako inbertsioak	13.500.000

EUSKARA161.753.409

• Pertsonal gastuak	90.174.190
• Arrasate Irratiko gastuak	1.650.000
• Euskaltegirako erosketak	2.400.000
• Euskara ekintzak	3.444.876
• Euskararako diru laguntzak	51.867.000
• Euskara bekak	1.200.000
• Euskaltegiko inbertsioak	2.100.000
• Arrasate Irratiko inbertsioak	500.000
• Arkoren inbertsioetarako	1.718.343

AUZOAK81.728.017

• Auzoetako jaietarako diru laguntzak	7.998.411
• Nekazaritza kuota	2.225.500
• Auzoetako inbertsioak	33.000.000
• Mendi nekazaritzako inbertsioak	5.000.000
• Baserri bideak	20.000.000

SONY



ZO *Jose Izamrabal*

Hemen
da



Erata



FAGOR 



Markulete
 Garagarza
 Gesalibar (Santa Ageda)

Erguin Herri Ikastetxea
 Escola Politeknikoa
 San Andres
 Santa Barbara parkea
 Arrasateko Alde Zaharra
 Monterrongo Parkea
 La Merced Ikastetxea
 Makatzena
 Ertzaingedia
 Musakolako gasolindegia
 Eskualde Ospitalea
 Kataide

Igandeetan, astearteetan eta ostegunetan
 Asteleneetan, asteazkenean eta ostiraletan
 Beti Gauko 21:00etatik 22:00etara
BETIKO GUNEETAN
Zaborra

Behar den unean
daokion gunean

HERRI KOMUNIKABIDEEI BURUZKO III. JARDUNALDIAK

Arrasate

P R E S S

Hamar urte
elkarrekin

Mirian Conde eta Arrasate Press



98ko Eroski Gabonak



Zorionak!!!




EROSKI

Erosten jakin



Herri komunikabideei buruzko III. Jardunaldiak

ATB lanean. Arrasate Telebista ere Herri Komunikabideei buruzko III. Jardunaldietan izan zen. Azaroaren 27ko albistegia Olandixon egin zuen, hara propio eramandako editaje gela erabiliz. Aurkezpenak, betiko moduan, Mainer Osak egin zituen. Kamera lanetan, berriz, Iban Gonzalez.



Irekiera ekitaldia.

Bederatzi lagunek osatu zuten mahaia irekiera ekitaldian, herri erakundeen eta babesleen ordezkariak denak ere. Biltzarkideei dagokienez, 120 lagunek parte hartu zuten jardunaldietan, hitzaldi aretoak dituen jarleku beste.

Anaitasuna. Goio Arana urduri samar zebilen bere hitzaldirako behar ziren aparailu guztiak ondo prestatzen. Orduan anaia nagusia agertu zitzaion, Edorta, laguntzera eta lasaitzera. Azkenean dena ondo atera zen, hitzaldi interesgarria bezain eredugarria izan baitzen.



HIZLARIAK

ARANA, GOIO

Grabatu eta Inpresio Siste-
metan graduatua da. Diseinu
grafiko eta tipografian aditua.
Arrasate Press aldizkarian
diseinatzaile bezala lan egin
du. Arrasate Pressen egin
zuen azken birdiseinuak
Design aldizkariaren aipamen
berezia jaso zuen. Bere kon-
tura lanean ari da orain, logo-
tipoak, foiletoak etab disei-
natuz.

CANCELO, ANTONIO

Eroski kooperatibaren sortzai-
le izan zen. Taldearen zuzen-
daritza bere gain hartu ondo-
ren, Eroskiko lehendakari izan
zen. Gaur egun, Mondragon
Corporación Cooperativa-ko
Kontseilu Orokorreko lehen-
dakaria da.

DE GRADO, ANGEL LUIS

Industria Ingeniaritzan lizen-
tziatua, Servicom enpresako
departamentu komertzialeko
buru izan zen. Gaur egun Ser-
vicom Magazine aldizkarian
dihardu, editore laguntzaile
lanetan.

ELICES, AINHOA

Enpresa zientzian lizentzia-
tua. Arrasateko Emun koop.ean
aholkularitza lanetan ari da.
Analisi estrategiko eta berri-
kuntzarako planean lagun-
tzaile izan da Topagunea 98
ren barne. Komertzial lanetan
aritu da Ainhoa Elices eta irai-
letik aurrera, Euskara Elkarte
eta Herri Aldizkarien Topagu-
nean Herri Aldizkarien saile-
ko teknikaria izan da.

ERKIZIA, XABIER

Irrati eta Telebistan diploma-
tua Bilboko Eskolan. Ikaske-
tak bukatu bezain laster ttipi-
tapa Telebistaren proiektuan
hasi zen lanean buru-belarri.
Aurretik izen bereko aldizka-
rian idatzi izan du.

HIZLARIAK

FERNANDEZ, LUIS

Kazetaritza lizentziatua. Hainbat aldizkaritan erredaktore gisa lan egin ondoren, Euskaldunon Egunkariaren Estilo Liburuaren erredakzioaren arduradun izan da. Rikardo Arregi Kazetaritza sariaren irabazle, Internet eta Teknologia gaietan espezializatu da azken aldi honetan.

IGARABIDE, JOSEBA

Industriagintzako gizona ikasketaz, baina kultura eta komunikabideetako bokazioz. Xorroxin irratiko sortzaileetarikoa bat, duela urte erditik buru-belarri dabil sartuta Xaloa Telebistaren antolakuntza eta garapen lanetan.

ITURAIN, IÑAKI

Enpresa zientzietan lizentziatua. Orioko Karkara aldizkariaren sortzaileetako eta erredakzio batzordekidea da. Andoaingo Udalak urtero antolatutako ohi duen Rikardo Arregi Kazetaritza Lehiaketaren irabazlea ere izan da, 1992. urtean, herrietako aldizkariaren atalean.

LARRAÑAGA, IMANOL


Irakasle Eskolan lizentziatua. Euskara irakasle izan zen Elgoibarko Udal Euskaltegian. 1992 urtea ezkerreko Elgoibarko Izarra Kultura Elkartearen eragile lanetan ari da.



Leialtasuna. Biltzarkideek arreta handiz entzun zuten Ricard Rafecas-en hitzaldia. Irakurleen leialtasuna irabazteko metodoak aipatu zituen. Berak, berriz, jakinmin handia erakutsi zuen Euskal Herriak bizi duen egoeraz. Larunbatean joan zen, Ibon Sarasolaren hitzaldia entzun eta gero.

Kalitate kontrola. Barren aldizkariko Imanol Larrañagak Elgoibarko aldizkariaren duten kalitate programaren berri eman zuen, grafikoaren laguntzarekin. Programa xumea, baina emaitza onak eman dituena.

Plan estrategikoa. Ainhoa Elicesek eta Luis Antonio Plazak Topagunea elkarteak egindako plan estrategikoaren berri eman zuten ostiraleko ekitaldian. Publizitatearen modu bateratua lantzeko komenigarritasuna ere aipatu zuten. Argazkian, Fernando Munioz-gurenekin batera.



GORKA
ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiralean
5etatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99

UNZUETA
J A T E T X E A

• Ospakizunak
• Jaunartzeak eta bataioak

1) Babarrunak (aza eta odolostearekin)
2) Bakailao frijitua edo bildots menestra
3) Postrea+edaria
2.800+7% BEZ

Zabola auzoa. ARAMAIO.
Tel.: 945 44 50 95




Ajerik gabeko euskara.

Lasai eta soseguz hasi zuen Ibon Sarasolak bere hitzaldia eta jendeak eskertu egin zion. Ez zen eztabaidarik falta izan, hala ere. Batez ere lekuan lekuko hizkeraren eta gure artean zabaldurik dauden zenbait ajeren inguruan. Egin zuen proposamenik herri aldizkarietan euskararen kalitatea goratzeko.

Kazetaria lanean.

Euskaldunon Egunkariak Ainhoa Oiartzabal kazetaria bidali zuen jardunaldietara. Andoaingo *Aiurri* herri aldizkarian ere badabil eta, beraz, gertutik ezagutzen du gure esparrua. Artikuluak ordenadorean idatzi eta modem bidez bidaltzen zituen. Teknologiaren aurrerapenak.



Edukiak aztergai.

Iñaki Iturainek eta Luis Fernandezek zuzendu zuten edukiei buruzko kritika saioa, MCCren bideokonferentzia gelan. Edukiak ezezik, aldizkarigintzaren beste arlo batzuk ere jorratu zituzten, adibide asko jarritz eta irtenbideak proposatuz. Interesgarria.

HIZLARIAK

LASARTE, GEMA

Zientzia Informazioetan lizentziatua. ETBko berriemaile izan da hiru urtez, barne produktioan. Salvadorren eta Nicaraguan ere Salpres Notisial informazio agentzian aritu zen lanean. Errenterriako Lau Haizetara elkartearen sortzaileetakoa ere bada, Oarso kultura fundazioaren sortzaile eta lehendakariorde izan da lau urtez. Euskarazko Herri Telebisten Federazioaren sortzailetakoa da.

PETRIRENA, PATXI

Psikologian diplomaturia. Euskara irakasle izan da hainbat euskaltegitan. 1992. urteaz geroztik, Euskaldunon Egunkariako euskara arduradun ezezik, aipatu egunkariako Estilo Liburuaren idazketa taldeko partaide ere izan da, egin diren bi argitalpenetan. Egun, iritzi emailea da Euskaltzaindia osatzen ari den Hiztegi Baturako taldean.

RAFECAS, RICARD

L' hora del Garraf eta El 3 de Vui astekariaren sortzaile izan da eta Kataluniako Eskualde Pentsaren Elkarteko lehendakari gisa burutu dituen ekin-tzen artean, EFE agentzia, eta Kataluniako bederatzi egunkariaren sorkuntzan parte hartu du.

GAMMA

- ELEKTROLOGIA ZENTRUA
- BEHIN BETIKO DEPILAZIOA

Aurpegi eta gorputzerako tratamendua • Doaneko kontsulta

Maalako Errabala, 17, 1.A • ARRASATE • Tel.: 943 79 51 25



Danona

KARROZERIAK

Konponketak, txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

HIZLARIAK

REMENTERIA, MAITE

Kazetaritzan lizentziatua. Elgoibarko Barren herri aldizkari-proiektuaren egilea da. 1996.a arte Barreneko make-tagile eta diseinu arduraduna izan zen. Handik aurrera, diseintzaile lanetan ari da Ihardun Multimedia enpresan.

SARASOLA, IBON

Euskal idazle eta hizkuntzalari. Ingeniaritza ikasketak egin zituen Donostian eta Filosofia eta Letretakoak Bartzelonan. Batez ere hizkuntzalari-ritza landu du, hiztegiaren alorra bereziki. Euskaltzaindiko Hiztegi-irritza batzordeko burua da eta Euskara Batuko batzordeko kide. Koldo Mitxelena hil zenetik Orotariko Euskal Hiztegiaren arduraduna da. Bere azken lanak, Euskara Batua-ren Ajeak, bazterrak harrotu ditu.

Merkatuaren legea.

Kostatu zitzaion Antonio Cancelori berotan sartzea, baina jaka erantzi ostean, oholtzatik jaitsi eta bete-betean sartu zen gaian. Diru irabaziak ezinbestekoak ditugula esan zigun, bestela inoren karitatetik biziko garela gatzigatuz. Eman zigun hausnarketarako gaia.




Herri telebista berriak.

Azken jardunaldiak egin zirenetik 1993an, lau herri telebista sortu dira euskaraz lan egiten dutenak: Xaloa TB, ttipi-ttapa TB, Oarso TB eta Ele Bista. Argazkian lehen hiruetako ordezkariak Jon Aldanondo ATBko zuzendariarekin batera.

Talde eraginkorra.

Agurtzane Gaintzarain Arkoko kudeatzaileak ederto bateratu zituen jardunaldietan lanean ari ziren taldeak. Argazkian Saioa Elejalde, Aitziber Urkiola, Oihana Jausoro, Anabel Sanchez eta Dorleta Agirre antolaketa laguntzaileekin.



Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 943 79 52 50

OPEL

Marka guztien konponketa eta zerbitzu osoa

BASABE POLIGONOA, A-13 PABILIOIA
Tel.: 943 79 62 65/943 79 20 86
Faxa: 943 77 16 20

AGENTZIA OFIZIALA

Ψ
NARE
psikologoak

Haurrak - helduak - bikoteak

RPS: 292/98
Isasi, 17 - 1 • EIBAR •
Tel.: 943 20 05 95

Aurreikuspen
planak


"Ezaidazu nolakoa
zaren eta zure
Aurreikuspen Plana
zein den esango
dizut"

Aurreikuspen Plan
MODERATUA

Aurreikuspen Plan
MISTOA

Aurreikuspen Plan
ALDAKORRA

Euskadiko Kutxan zure
bizitza-estiloari ondoen
egokitzen zaion
Aurreikuspen Planari
buruz aholkatzen zaitugu.


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Erantzun
zuzena

**EUSKADIKO
KUTXAK**
aurreikuspen
planen
eskaintza
handitu egin
du.

▪ **Euskadiko
pentsioak**
Gorabeherarik
gabeko
errentagarritasun
lortu nahi duten
pertsontzat.

▪ **Euskadiko
pentsio mistoa**
Gehienez ere
inbertsioaren %3
errenta
aldakorrean izate
aurreikusita dago

▪ **Euskadiko
pentsio
aldakorra**
Inbertsioak
gehienez ere
%40 errenta fijoak
eta %60 errenta
aldakorrean egite
dira.

Posible da diru
batetik bestera
aldatzea.

Zoaz gaur
bertan zure
sukurtsalera
zure premiei
hobeto
egokitzen zaier
planari buruzko
informazioa
jasotzera.

Mondragoetarren astekaria

Hamar urtean asko aldatu da Arrasate. Bai eta Euskal Herria bera ere. Eta horren lekuko zuzena izan da arrasatearre- on astekaria: Arrasate Press. Horren berri ematen aritu da hamar urtez, batzuetan beste batzuetan baino hobeto, baina beti Mondragoen eta inguruetan gertatzen zena herritarroi gerturatzeko helburuarekin.

Gaur, Arrasate Pressen hamargarren urteurrena ospatzen dugun egunean, hamarkada horren laburpen bat egin nahi izan dugu.

Arrasate Press astekariak 1988ko abenduaren 2an ikusi zuen argia. Mirian Conde Andres ere egun hartan jaio zen. Uriburuz auzoan



Mirianek hilabete bat baino ez zuen argazki hau atera ziotenean.

1988

• **Abenduak 2.** Arrasate Pressen lehen alea kaleratu zen. Zeharkale estalian izan zuen lehen etxea. Lau lagunek sortua zen, AEDren babesean: Jose Mari Eraña, Jose Felix Diaz de Tuesta, Iñaki Mendiguren eta Joxe Aranzabal. Azken hau izan zen lehen zuzendaria. Bi kazetari eta publizista batekin hasi ziren lanean. Zortzi laguntzailerekin hasi zen. Jose Luis Agotek egin zituen lehen lau aleen maketak.



1989

• **Urtarrilak 13.** Goio Arana hasi zen maketagine moduan.

• **Irailak 1.** Aldizkaria Arrasate Pasealekura pasatu zen, gaur egun Arrasate Irratiaz dagoen tokira.



1990

• **Otsailak 1.** Arrasate Press egoitza Azoka kalera pasatu ospital zaharrera. Aldizkaria jaio berri zen telebistak zuzentokia hantxe.

• **Otsailak 13.** ATB ermita zuzentzen, astelehen, asteazken ostiraletan UHFko 23. kanalera. Koldo Rodriguez izan zen zuzentzaile. Mondragoetako saioa, berriaz, Jon Andueza zuzentzen zuen.

1988

• **Abenduak 2.** Mirian Conde Andres jaio zen, Arrasateko eskualdeko ospitalean. Andoni eta Txaroren bigarren alaba zen. Naiarak, Mirianen ahizpa zaharrenak, ordurako 9 urte zituen.

1989

• **Urtarrila.** Uribarriko Gure Amaren Esperantza elizan bataiatu zuten Mirian, Mikel izan zen apaiza, gaur egun ere Uribarriko apaiza dena.

• **Iraila.** Altamira auzoan etxebizitza berriak eraikitzen ari ziren. Irailean zehar 377 eskaera egin ziren. Udalak eskaerak egiteko aukera luzatu zuen.



1990

• **Otsaila.** Urte horretako aurrekontua izango zena zuzentzen ziren zuzentzaileak. 3000 zuzentzaile ziren. 2.119 milioi aurreikusten zituen. Bizi-aldia zuzentzen zuten zuzentzaileak, Arrasate Pressen lehenago udalaren aurrekontuak 200 milioiokoa izan zela zuzentzen zuten.



Arantzazu Loidi zuzendari zela, hauxe zen Arrasate Presseko taldea.

motela zen. Testuak irarkolara eramaten ziren, handik eredu bat bidaltzen zen eta hura xe zuzendu ondoren, berriz ere inprentara. *Arrasate Press* ordea Macintosh Plus ordenagailuetan egiten hasi zen. Horrek lana dexente errazten zuen, zuzenketa aurrez egiten zirenez, irarkolara produktua osorik bidaltzen baitzen. Dena den, mondragoe-

taren astekariak aldaketa ugari jasan ditu teknologia berriei esker.

ITXURA HOBETZEN

Ruper Ordorika eta *Arrasate Pressen* arteko harremana ez da orri osoko iragarki batera mugatzen. Astekaria egiteko saiakera hartan, berak izan zuen Bernardo Atxagaren ezaguna zen Jose Luis

Agoterekin harremanetan jartzeko ideia. Asteasuar honek ordenagailuak ezagutzen zituela eta, bera izan zen lehenengo lau aleak maketatu zituena. Bitartean, ikastaro bat antolatu zen Page Maker programa erabiltzen ikasteko. Handik atera zen Goio Arana mondragotarra. Bera orduan Fagorren ari zen lanean, baina

diseinu kontuetan ondo baino hobeto moldatzen zela erakutsi zuen eta berea egin zuen *Arrasate Pressen* maketagine postua.

Goio izan da *Arrasate Pressek* izan dituen itxura aldaketa guztien egilea. Berak azaltzen duenez "hasierako aldizkaria oso pobrea zen forma aldetik eta maketazioa ia egituratu barik zegoen. Orrial-

1993

- **Uztailak 16.** Aldizkariak 200. alea kaleratu zuen
- **Azaroak 27-28.** Herri Komunikabideei buruzko II. Jardunaldiak. Arrasaten egin ziren, Aita Menni ospitalean. 20 hizlarik eta ia 200 lagunek hartu zuten parte.
- **Abenduak 3.** *Arrasate Pressek* aldatu egin zuen mantxeta. Hortik aurrera, aldizkariaren azala kolorez izango zen, modu jarraian eta Udalatx mendiaren irudia den triangeluak toki berezia hartu zuen goiburuan.



1995

- **Martxoak 24.** Beñardo Kortabarria *Arrasate Presseko* zuzendari berria. Aurretik ibilia zen kazetaritza lanetan hiru bat urtez. Berarekin batera Goio Arana maketaginea ere itzuli zen.
- **Martxoak 31.** Talde berriak birdiseinatu egin zuen *Arrasate Pressen* mantxeta.
- **Abenduak 15.** Aldizkariak 300. alea atera zuen.



1996

- **Azaroak 8.** Birdiseinatu egin zuen *Arrasate Pressen*. Saldutako berriak, kolaboratzaile berriak, berritu... egungo itxura berria ziztaion orduan.

1993

- **Uztaila.** Roneoko etxeetako lanak hasiak zirela XVIII.-XIX. mendeetako hilerrri bat aurkitu zuten, hezur askorekin.
- **Urriak 25.** AEDK hamar urte bete zituen.



1994

- **Abuztua.** Lehenengo aldiz hegazkinean ibiltzeko aukera izan zuen Mirian Condek, Tenerifera joan zen eta, gurasoekin.
- **Azaroa.** Lastertasun Handiko Trenaren inguruko xehetasunak ezagutu ahal izan genituen *Arrasatei Pressei* esker.

1995

- **Martxoak.** Infanteren gaitza, jarraipenik egin zuten gaitza Denetik egon zen erantzukizuna behar izan zuten gutxi batzuk egin

1996

- **Azaroa.** Auzitegi Nagusian agindu zion. Erabaki hori ez legezkoa zela erabaki

an eta gaur

	1998
ak	24.571
Aktiboa	10.956
ak	621 (%5,7)
ea	Jose Mari Loiti (EAJ)
kontua	3.296 milioi
zaguera	13.067 (%54)
lerra kalean	%33
zak	8.319
bilak	9.281
ak	143
ak	193
gaiak	188
gabeak	%0,76
erioak	%15,04



Ospital zaharrean eman du astekari honek denbora gehien eta ordukoa da argazki hau.

de batzuk aldizkari batekoak baino fanzine batekoak ziruditen". Baina denborarekin hori gaintzea lortu zuen eta egungo astekariak ez dauka zerikusirik orain hamar urte argitaratu zen harekin.

Hobekuntza horiek ez dituzte soilik irakurleen begiek eskertu. Goioren lan ona *Design* aldizkariak ere ikusi zuen eta 1997ko irailean

Society of News Design elkartearen *Design* aldizkariak munduko egunkari txiki onenen artean aukeratu zuen *Arrasate Press* zuen diseinuagatik.

339. alea izan zen diseinu berri horrekin atera zen lehenengo alea. Aste horretan *Txabolak* izenburupean, honddarrekin eraikitako auzoen inguruko erreportajea idatzi zuen Maider Egues kazetariak.

PROTAGONISTA EGUN BATEZ

Baina non dago Mirian istorio honetan? Hamar urte bete berri duen neskato honek adierazi digunez, "txutxumutxuak dira gusturen irakurtzen ditudanak". Eta ez da harritzekoa, asko eta asko baitira *Arrasate Press* irakurtzen hortik hasten direnak. Bera oraingoan ez da txutxumutxueta atera. Azalean dago eta aste honetan, bere lagunek

eta ingurukoek, txutxumutxueta kanpo joango dira 10. urteurreneko alean. Horixe da herritarrak protagonista bihurtzeak dakarrena.

Urte hauetan anonimotasunetik protagonista izatera eraman ditu mondragoetar asko *Arrasate Pressek* eta horixe egiten segituko du, beste hamar urtez gutxienez. ■

Marijo Deogracias

1997

- **Otsailak 13.** Arrasate Press oraingo etxera pasatu zen, Otalora kalera. 220 metro koadrotan banatu zituen bere zerbitzuak.
- **Iraila.** SND (Society of News Design) elkartearen *Design* aldizkariak munduko egunkari txiki onenen artean aukeratu zuen Arrasate Pressen diseinua. Goio Aranek egina zen, 1996an.



1998

- **Urtarrilak 30.** Joxe Aranzabal zuzendari gisa itzuli zen.
- **Martxoak 18.** Aldizkariak 400. zenbakia kaleratu zuen.
- **Azaroak 27-28.** Herri Komunikabideen III. Jardunaldiak egin ziren LKSren egoitza nagusian. 17 hizlari eta 120 partaide izan ziren.



1997

- **Maiatzak 4.** Lehen jaunartzea egiteko garaia heldu zitzaion Miriani, Uribarriko Gure Amaren Esperantzaren elitzan.
- **Uztailak 4.** Gu konturatzeko Arrasate Presseko azalean agertu zen Mirian.




1998

- **Ekainak 26.** Kamera digitala erabiliz, San Juanetan azken orduko erretratuak atera genituen.



ASEGURU SORTARIK Osatuena



MAPFRE Auoetan poliza sortarik osatuena aurkitzeko ziurtasuna duzu, zeuk egokiena eskura dezazun.

Zeure beharren neurrira.

Eta autoetan Lehenengo Aseguru Etxearen babesak jasoko duzu zeure eta zeure senitartekoen segurtasunerako.

MAPFREk 3.000.000 auto baino gehiago ditu aseguraturik eta Bulego Sarerik handiena du, Bezeroaren Atentziorako 2.400 Punturekin.



Asegura ezazu zeure autoa hobeto **MAPFRE**ren **ABANTAILA ESKLUSIBOekin**

- Abantaila ekonomikoak. Ordaintzeko erraztasun gehiago.
- Merkatuko bonifikazio sistemarik onena.
- Aseguratuaren arartekoa.
- Geure Zentru Medikuak
- Bidaiako Laguntzarako sarerik zabalena.
- Peritazio Arinerako 80 Zentru baino gehiago eta Berehalako Ordainketa
- Tailerraren aukeraketa Librea
- Bulego Sarerik handiena
- MAPFRE Autoak Linea, telefono bidezko Atentziorako.
- Familia Unitatearen 2. autorako Abantailak
- Alda zaitez MAPFREa, azkartu zeure hobariak.

MAPFRE Sarea Zugandik gertu

Garibai Etorbidea, 16-behea • ARRASATE
Tel: 943 79 89 00/ 943 79 89 43

Beti eskura

902 44 88 44

www.mapfre.com/automoviles



Gehien saltzen duten izenburuak

Orain 10 urte, jendea harritu egin zen *Arrasate Pressen* publizitatea ikustean. Zertarako balio ote du herri aldizkari batean publizitatea jartzeak?

Denborak erakutsi du publizitateak bere lekua daukala *Arrasate Pressen*, eta ez da txikia. Izan ere, etxe honetara diru ederra sartzen dute gure publizistek.

Publizitatea egiteko arrazoi nagusia ekonomikoa da. Auto-finantziaketa lortu beharra dago. Dena den, badaude oso kontuan hartzeko bestelako kontu batzuk ere:

- *Arrasate Press* eta *arrasatearren* arteko harremana estutzea: herritarrek *Arrasate Pressi* buruz duten iritzia jaso eta ekarri egiten dute. Aldizkariaren irudia lantzeko arduraren zati handi bat publizistek eskuetan dago. Aldizkariaren irudia kanporatzen dute

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....
HELBIDEA.....
HERRIA.....

Zeharkale Estalia 1, 1. b -ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

ARRASATE PRESSEko
harpidetza
berriztu
nahi duzula?



Arrasatek kanpo dauden lagun edo senitartekoei harpidetza oparitu nahi diezula?

ORAINTE DUZU GARAIA!

Arrasatek kanpo dauden arrasatearrek hemengo berriak eta jendea gertuago izan dituzten Gure kontu korrontean 3.000 pta.ko diru sarerra egin dezakezu kontu korronte zenbaki hausetako batean:

- KUTXA 001.026694.8 (Portaloiko bulegoa)
 - EUSKADIKO KUTXA 001.002.7600 (Iturriotz kaleko bulegoa)
- Ingresoa egitean garbi adierazi, mesedez, aldizkaria zeinen izenean bidali behar den.
ARRASATE PRESS atzerrian bizi den norbaiti bidali nahi badiozu, zator gure bulegoetara eta jakinaraziko dizugu.
Tel.: 943 79 02 26 Helbidea: Otalora Lizentziatua, 31 • ARRASATE

Orain 10 urteko iragarki bat gaur egungo batekin parekatuta.

promozio edo oparien bidez.

- Aldizkaria asko janzten du publizitateak. Sormen aldeetik diseinu berriak erabiliz eta kolorearen bitartez, aldizkaria erakargarriagoa egiten du.


BILAKAERA

Argi dago teknologia berriek asko lagundu dutela publizitatearen bilakaeran. Dena den, publizitatearen garrantzia eta funtzioa ere aldatuz joan da.

Lehen:

Iragarkiak: zuri-beltzean ziren eta asko jota iragarkia jartzen zuenaren logotipoa eta ezaugarri gutxi batzuk agertzen ziren. Oso sinpleak ziren.

Bezeroak: Gehienbat *Arrasate Pressi* laguntzeko jartzen zituzten iragarkiak. Publizitateari garrantzia ematen zioten, baina gehienbat euskararekiko adostasuna erakusteko. Bezeroak herrikoak bertakoak ziren.



Kepa Oliden



Amaia Gabilondo



Inaki Etxeberria



Alberto Garro

Orain:

Iragarkiak: kolorea daukate, argazkiak sartu dira eta berebiziko garrantzia hartu dute. Logotipoa askoz ere garrantzitsuagoa da. Oro har, sormen aldetik landuago daude. Erakargarritasuna lortzea da helburua.

Bezeroak: oraindik badago publizitatea laguntza gisa ipintzen duenik baina, oro har, ikuspegi publizitarioa nagusi da. Era berean, bezeroak kanpotik ere badatoz orain

BESTE PRODUKTUAK

Hasieran, publizistek *Arrasate Press*erako egiten zuten lan soilik. Orain, produktu berriak lantzen dituzte. Ondorioz, langile kopurua ere handitu behar izan da erantzukizunari eta lan berriei aurre egin ahal izateko.

• **ATB:** medio berria sartu zen orain zortzi urte. Beharrezkoa da bertarako publizitatea lortzea.

• **Udal Euskaltegiak:** publizitate kanpaina osoa eraman dute *Arrasate Presseko* publizistek. Honelakorik egiten den lehenengo aldia izan da eta pozik daude emaitzarekin.

• **Dena Auto:** bi herri aldizkariaren elkarlanaren bitartez eraturako egitasmoa: *Arrasate Press* eta *Berrigara*. Berri-

Arrasate Presseko publizistaren profila

- Irizpide publizitarioa izatea
- Dinamikoa
- Limurtzailea
- Kazetaritza-publizitate edo Marketing heziketa izatea.
- Informazioan, diseinuan eta teknikan egunean egotea.
- Komunikabideen eta inguruaren ezagupen zabala.
- Komunikazio ezagutza.
- Irudimen eta sormen handia
- Harreman publikoetarako gaitasuna.
- Atsegina
- Ikuspegi psikologiko landua
- Argazkigintzan oinarritzko ezagutza.

Gaur egungo zenbakiak

- 580 bezero baino gehiago.
- Autofinantziaketa %15ean igo da 10 urtean.
- Publizitateak aurrekontu osoaren %50 lortzen du.
- Hiru publizista daude.
- 6.400 etxetara heltzen da publizitatea.
- Gidak 11.400 aleko tirada dauka.

Bezeroei eskertza

Arrasate Presseko publizistek bereziki eskertu nahi dituzte bai hamar urte hauetan gurekin egon diren bezeroak eta baita berrienak ere. Geuregan daukaten konfiantza benetan eskertzekoa da. Gainera, kasu gehienetan daukaten harremana estua da. Eta noski, jartzen dituzten iragarkiekin, aldizkaria jantzi egiten dute, bizitasun berezi bat emanez. Guzti horrengatik mila esker!

sate Press eta *Berrigara*. Berri-berria da, irailean hasi baitziren formula honekin. Bi aldizkariaren hedapenak ematen duen indarra aprobeztatuz, bigarren

eskuko autoen gida landu dute. Bide honetatik, 11.500 etxetara heltzea lortu dute.

• **Gidak:** *Arrasate Press* izan zen gida egiten lehena.

Seigarren urtea izango du oraingo hau. Denborak erakutsi du gida oso erabilgarria dela. Jendea erabiltzen ohitu da eta geroz eta harrera hobea du.

Gaur egun herri aldizkari gehienek kaleratzen dute eta udal askotan ere egitasmo bera egiten ari dira. *Arrasatekoan* kasu.

PUBLIZISTEN KEZKAK

• **Audientzia ikerketa:** *Arrasate Press* irakurtzen duen jendeak zein atal eta nola irakurtzen duen jakitea komeni zaie. Bezeroentzat informazio hori oso garrantzitsua da. Daturik ez izateak zaildu egiten du publizisten lana. Dena den, datorren otsailetik aurrera, datu zehatzak izango dituzte.

• **Bitarteko eskasekin lan egin beharra:** publizitatea egiteko modua teknologia berriak agertu ahala aldatzen da. Teknologia berriena ez edukitzeak izugarri mugatzen die lana.

• **Produktu berriak asmatu beharra:** zer saldu, nori, nola... Ezin dira betiko gauzetan gelditu. Aurrera egin beharra dago.

• **Formakuntza:** teknologia berrietara egokitzeko.

Ubane Madera



Jasone Mendizabal



Kaittin Allende



Nerea Zallo



Arantazu Lagunilla

Igogailua gailurreraino
balego ere,
inoiz ez luke hartuko.



Mendiko jaken bilakaerak berebiziko urratsa egin du. MOUNTAIN GUIDE JACKET aurkezten dizuegu. Gore-Tex®, gogorra, irazgaitza eta arnasa hartzen duena. Eguraldi gogorrerako. Txano ergonomikoa eta 10 ataletan egindako mahukak, mugitzeko erabateko askatasuna eskaintzen dutenak. Haizeztatze kreamailera, klima beti kontrolpean izateko. Mountain Guide Jacket, bere aurrekoen harrotasuna, goi mailako alpinismoko 30 urtean zehar garatua.



Gore-Tex is a registered trademark of W.L. Gore & Associates, Inc.

THE
NORTH
FACE

KIROL BAKOITZARI ERANTZUN BAT

Kontzezino kalea, 8 • Tel.: 943 79 46 12 • ARRASATE



**ARRASATE
KIROLAK**



Ez zen Arrasate Press kalera irten zen lehen herri-aldizkaria, baina bai kaleratuz gero gehien iraun duena eta hori meritu gutxi izanda, bere ondoren (ez nintzateke erratuko "ondorioz" esango banu) jaio diren ia gehienengat begiratu beharreko ispilua izan da.

Martxelo Otamendi
Egunkariako zuzendaria



Imaginatzen duzue Arrasate Arrasate Pressik gabe?

Joxe Manuel Irigoien,
ttipi-ttapako zuzendaria

Arrasate Press hizpide



Euskarazko herri-aldizkarien publizitatea zerbitzu bat da merkataritza guztientzat, beste inongo komunikabidek ezin eskaini diena. (...) Arrasate Press aldizkaria da, esaterako, Arrasaten publizitate gehien duen komunikabidea: Arrasate Presseko iragarleak ez du beste inongo komunikabidetan bere inbertsio publizitarioari halako etekinik ateratzeko modurik.

Joxe Felix Diaz de Tuesta




(...) proportzioz, herri-tarrek gehiago irakurtzen dute aldizkari hau gainerako egunkariak baino (...). Eta hori aipatzeko zerbait denez, gure agintariek kontuan hartu beharko lukete beren kultura politika eta diru laguntzen politika diseinatzen dutenean. (...) Aldizkari hau bezalakoek bultzatzen dute euskara eta esperientzia hedatu egin beharko litzateke gainerako lekuetara ere.

Pello Salaburu



Denbora luzea behar da herria berreuskalduntzeko. Euskara ikastea da lehen urratsa. Baina ez da aski. Euskara erabili egin behar da bazter guztietan. Eta eskolan ikasten den hizkuntza bazter guztietan erabiltzeko giroa eta beharra sortu behar dira, besteak beste. Arrasaten asma-tu dute bidea, nire ustez. Antzeko bidetik jo beharko da aurrera beste herrietan...

Mikel Atxaga



(...) 400 kolperen buruan, oraindik Presseko ispiluan begiratzen dira asko. Orain ere eredu da eta.

Luis Fernandez

ORDUTEGIA
Asteartetik ostiralera:
9.30-19.30
Larunbatetan:
9.00-16.00

JADE
ILEAPAINDEGIA


ZATOZ!

Maialako Arrabala, 21-B
ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

ARQUERO
CONSTRULAN S.L.

ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK
Basabe Industrialdea 4, EQ- 11 • ARETXABAleta
Tel/fax. 943 79 01 51 • Mugikorra (908) 77 28 67 • Partikularra 943 79 74 26





Biltegia eta bulegoak: Meatzerreka, 6 • Tel./Faxa: (943) 79 14 28 • ARRASATE
Erakusketa: Otalora, 1 behea • Tel.: 79 07 20 • ARRASATE

ERAIKUNTZARAKO MATERIALAK

JOSUNE ARIZTONDO (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEA)

“Arrasate Press sekulako ispilua izan da”

Arrasatera etorri zen joan den larunbatean, Herri Komunikabideei buruzko III. Jardunaldietan azken hitzaldia egitera. “Hizkuntza Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) eta Herri Komunikabideak” zen bere gaia eta horretaz aritu ginen hizketan.

— Abenduaren 2an Arrasate Pressek 10 urte bete ditu. Nola ikusi zenuen sorrera bere garaian eta izan duen eragina?

— Gauza asko gertatu dira azken hamar urteotan euskararen kalitateari dagokionez. Ekarki nagusietako bat izan da jendea interesatzen zaizkion gaiak euskara jator eta hurbilean aurkitzea. Baita herri euskararen prestijiatzea ere. Hau oso inportantea da, zeren eta zaharrak konturatzen badira beren euskara hor dagoela, txukun eta zuzen, harro sentitzen baitira. Eta hori ona da euskara estandarrentzat ere.

Zuen kasuan erantsi behar nuke lehenengoa dena gauzak txukun egiten saiatzen bada, eredu bihurtzen dela. Hori gertatu zaio Arrasate Pressi.

— Nola ikusten duzu herri komunikabideen bilakaera?

— Herri aldizkari guztiak multzo batean pilatuz gero, ikusiko genuke batzuk Arrasate Press orain hamar urte zegoen bezala daudela: oso ahul, azpiegitura txikiarekin, hobetzeko askorekin. Beste batzuk hobeto, Arrasate Press orain bost urte zegoen antzera. Eta beste batzuk, berriz, oso

erakargarri eta ondo eginda. Euskararen aldetik ondo ikusten ditut, nahiz eta batzuek baduten zer hobetu. Arrasate Press sekulako ispilua izan da besteentzat eta erantzukizun handia izan du bilakera honetan, dakiena erakusten saiatu delako.

— Zein da herri komunikabideen ekarpena euskararen normalkuntzari?

— Joan diren 20-30 urtetan belaunaldi berri bat sortu da EAEn batez ere, euska-

ra eskolan ikasi duena. Haue-tako askori, ordea, nabaritzen zaie ez dutela euskara egiten etxean edo kalean eta, horren ondorioz, hutsune handiak dituzte hizkuntzan. Bestetik, betiko euskaldun petoak daude, inoiz euskaraz irakurri ez dutenak. Herri aldizkariak bien premiak asetzeko elementuak dauzkate. Lehenbizikoentzat kirolak, aisia, etab. Bigarrenak albiste laburrak, txutxumutxuak eta argazki oinak, besteak beste, aurkitu ahal dituzte.

— Zer lehenetasun ezarri dira EBPNan euskarazko herri komunikabideentzat?

— EBPNk arlo estrategiko zenbait definitzen ditu eta bat komunikabideena da. Bereizi egiten dira irratia, prentsa eta telebista. Bakotzaren ondoan indarguneak eta ahulguneak ezartzen dira. Herri aldizkariaren indarguneak hauek dira: euskararen jatorrasuna, hedapen zabala, irakurzaletasunaren sustapena (euskal prentsa inoiz ez da hainbeste iralurlerengana iritsi) eta kazetarien harrobi izatea. Ahulguneak, berriz, hauek dira: azpiegitura falta, produktuaren kalitatea landu beharra eta bakarka ibili beharra.

Neurri batzuk ere proposatzen dira: azpiegitura sendotzea, elkarlana sustatzea eta autofinantziazioa gehitzea.

— Eta zer egin dezake eta herri erakundeek herri komunikabideen hobekuntzari?

— Alde batetik, hausnarketa egin herri komunikabideekin batera. Jardunaldi hauetan ateratako proposamenak ezagutu nahi ditugu, gero koordinatu ahal izateko. Aurrerantzean, gainera, errazago izango dugu koordinatzea, orain urtebete HAKOBA (Herri Agintak Koordinatzeko Batzordea) sortu genuen eta. Hor Eusko Jaurilaritza, hiru foru aldundiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuak daude ordezkaturak. ■




SUZUKI BI MODELO BERRI AURKEZTEN DITU

GRAND VITARA



GALDETU KANPAZAR TAILERRETAN

JIMNY



Urte bukaera arte Suzuki Vitara Td. 3 ate. Sapai met. Stand 2.152.000 pta. (*)

(*) Oinarizko kolorea eta promozioak barne

=KANPAZAR TAILERRAK

Tailerra: Bizkaia Etorbidea, z/g. Tel.: 943 79 41 98

centro hogar MUEBLES



a, eme interiores

sukaldea



Sofa
leku

GRUPO
M
Amuebladora
Mondragonesa

C/ Zigarrola, 1 pab. 6-10 • C/ Garibai, 9 • 20.500 ARRASATE
Tel. 943.791503 - 943.771492 • Faxe 943.791498